  - Enpresa-jarduera berriak abiaraztea bultzatzeko laguntzak, tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan (2.2.3.) // Enpresa-jarduera berriak abiaraztea bultzatzeko gazteentzako laguntza, tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan (3.1.2.).
  - Enpresa-jardueraren bat abiarazi, eta proiektua sendotzeko babesa behar duten pertsonentzako laguntzak (2.2.4.) // Enpresa-jardueraren bat abiarazi, eta proiektua sendotzeko babesa behar duten gazteentzako laguntzak (3.1.3.).
- **Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak** (5.1. ardatza) Agindu arautzailean zehaztutako 4 moten arabera egituratuko dira:
  - 1. mota: Enplegu-sustapena: planaren bertsio publikoan ageri den bezala dago.
  - 2. mota: Tokiko ekintzailetza bultzatzea: planaren bertsio publikoan ageri den bezala dago.
  - 3. mota: Kontratatziorako laguntzak: planaren bertsio publikoan ageri den bezala dago.
  - 4. mota: Enplegu-sorreran eragina duten toki-garapenerako beste ekintza batzuk: ekimen gisa berariaz aipatzen da (2014ko Ekintza Planean ez zen banakatuta ageri).

- **Enpleguan eragina duten ekimen berriak** gehitu dira honako **ardatz** hauetan:
  - **3.4 ardatza, talentu gaztea**. Bi ekimen berri garatu ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak:
    - Garapenerako lankidetza arloan espezializatzeko bekak (3.4.5).
    - Laguntzak euskal kooperanteentzat (3.4.6).
  - **5.2 ardatza, Bestelako kontratazio-pizgarriak**. Lanbidek garatutako ekimen berria:
    - Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea.
- Hala, Planak jasotakoaren arabera, **2014an 89 neurri zehatz garatuko dira, enpleguan zuzeneko eragina izango dutenak**.

Amaierako ebaluazio-txostena egin zen datan (2014/12/31), 2014ko Ekintza Planak barne hartutako **89 ekimenen egoera** honako hau da:

Diseinu-fasean eta/edo finantzaketa lortzeko bidean.




86 ekimen abiarazi dira eta, berritzaileenak diren aldetik, honakoak nabarmenduko dira:

- **Lehen Aukera**, gazteen lehen lan-esperientzia.
- **Mikrokreditu-programa.**
- **Kalitate-ziurtagiriak merkataritzan.**
- **EIKTak merkataritzan** txertatzea.
- Zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzeko kapital funtsa, langileek kapital sozialean parte hartuz (**Lanpar funtsa**).
- **Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen programa.**
- **Ekintzaileei tokiko ekintzailetasun proiektuen** esparruan laguntzea.
- Aurrezki pribatua bideratzeko **zerga neurriak**.
- **Lanbide-gaitasunen ziurtagiriak**.
- Enplegagarritasunerako proiektu eta esperientzia berritzaileak: **Laida proiektua.**
- Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea. **Basque Funtsa**.

3 ekimen daude diseinu-fasean eta/edo garatzeko finantzaketa lortzeko bidean:

- **Enpresa berriak enpresa-haztegi berrietan**: sortze-industrietan, ingurumenean (*green jobs*), informazioaren teknologietan (*blue jobs*) eta osasunean (*white jobs*).
- **Gazteak itzultzea bultzatzea.**
- **Berrikuntza trebakuntzan**: Ekintza berritzaileak gazteen enplegurako prestakuntzan.

Txosten honen 5. puntuan ekimen bakoitzaren egoeraren xehetasunak azaldu dira.

| Kod. | EKIMENA | Egoeraren laburpena |
|---|---|---|
| 1.1.1 | Inbertsioa Finantzatzeko Babesa | Abian jarrita |
| 1.1.2 | Bideratu | Abian jarrita |
| 1.1.3 | Luzaro BEI | Abian jarrita |
| 1.1.4 | Hitzarmena finantza-erakundeekin, ETEen eta autonomoen finantzaketa sendotzeko | Abian jarrita |
| 1.1.5 | ETEen eta autonomoen zirkulatzailea finantzatzeko funts osagarria | Abian jarrita |
| 1.1.6 | Zailtasunak dituzten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitza | Abian jarrita |
| 1.1.7 | Zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzeko kapital funtsa, langileen kapital sozialean parte hartuz (Lanpar funtsa) | Abian jarrita |
| 1.1.8 | Aurrezki pribatua bideratzeko zerga neurriak | Abian jarrita |
| 1.2.1 | Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak | Abian jarrita |
| 1.2.2 | Merkataritza-saltokiak modernizatzea | Abian jarrita |
| 1.2.3 | EIKTak ETEetan txertatzea | Abian jarrita |
| 1.2.4 | Kalitate-ziurtagiriak merkataritzan | Abian jarrita |
| 1.2.5 | Turismo-lehiakortasunerako laguntzak | Abian jarrita |
| 1.2.6 | Enpresa turistikoak modernizatzeko eta hobetzeko laguntzak | Abian jarrita |
| 1.3.1 | Leader | Abian jarrita |
| 1.3.2 | Erein | Abian jarrita |
| 1.3.3 | Itsaspen | Abian jarrita |
| 1.3.4 | Landa-turismoko saltokietan inbertsioak egiteko laguntzak | Abian jarrita |
| 1.3.5 | Garapen eta ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean | Abian jarrita |
| 1.3.6 | Gaztenek - Gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko programa | Abian jarrita |

| Kod. | EKIMENA | Egoeraren laburpena |
|---|---|---|
| 2.1.1 | Ekintzailetza-legea garatzea. Leihatila bakarra eta administrazio-izapideak sinplifikatzea | Abian jarrita |
| 2.1.2 | Ekintzailetza sustatzea SPRIren bitartez | Abian jarrita |
| 2.1.3 | Bizkaiko Foru Aldundiko DEMA programa (sentsibilizazioa) | Abian jarrita |
| 2.1.4 | Ekintzailetzari laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bitartez | Abian jarrita |
| 2.2.1 | Langabezia kapitalizatzea enplegu autonomoa sortzeko | Abian jarrita |
| 2.2.2 | «Enpresa ideia» bat garatzeko laguntzak ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan | Abian jarrita |
| 2.2.3 | Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa jarduera berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak | Abian jarrita |
| 2.2.4 | Enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak, ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan | Abian jarrita |
| 2.2.5 | Bizkaiko Foru Aldundiko DEMA programa (mikroekintzailetzak laguntzea) | Abian jarrita |
| 2.2.6 | Mikrokreditu-programa | Abian jarrita |
| 2.2.7 | Belaunaldi-aldaketa programa | Abian jarrita |
| 2.3.1 | Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea. Basque Funtsa | Abian jarrita |
| 2.3.2 | Ekintzaile | Abian jarrita |
| 2.3.3 | Gauzatu Industria | Abian jarrita |
| 2.3.4 | Gizarte-ekimena: Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza osoa ematea | Abian jarrita |
| 2.3.5 | Gizarte-ekimena: Gizarte-ekonomiako enpresetan kide berriak lortzeko laguntzak | Abian jarrita |
| 2.3.6 | Gizarte-ekimena: Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegia | Abian jarrita |
| 2.3.7 | Ekintzailetza estrategikoen inguruko Micronnect programa | Abian jarrita |
| 2.3.8 | Enpresa berriak enpresa-haztegi berrietan, alegia, sortze-industrietan, ingurumenean (*green jobs*), informazioaren teknologietan (*blue jobs*) eta osasunean (*white jobs*) | Diseinu-fasean eta/edo garatzeko finantzaketa lortzeko bidean |

| Kod. | EKIMENA | Egoeraren laburpena |
| --- | --- | --- |
| 3.1.1 | Enpresa-ideia bat garatzeko laguntzak gazteentzat ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan | Abian jarrita |
| 3.1.2 | Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa jarduera berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak gazteentzat | Abian jarrita |
| 3.1.3 | Enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar duten gazteentzako laguntzak | Abian jarrita |
| 3.1.4 | Gaztenpresa | Abian jarrita |
| 3.1.5 | Urrats bat | Abian jarrita |
| 3.1.6 | Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat | Abian jarrita |
| 3.1.7 | Junior-kooperatibak | Abian jarrita |
| 3.1.8 | Gazteen ekintzailetza sustatzeko ekintza berritzaileak | Abian jarrita |
| 3.2.1 | Hezibi programa | Abian jarrita |
| 3.2.2 | Lan-zentroetako prestakuntza praktikoa | Abian jarrita |
| 3.3.1 | Lehen Aukera (gazteen enplegua sustatzeko ekintza berritzaileak) | Abian jarrita |
| 3.3.2 | Euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan tituludun gazteak kontratatzea | Abian jarrita |
| 3.3.3 | Errelebu-kontratuak egiteko laguntzak | Abian jarrita |
| 3.3.4 | Hitzarmenak unibertsitateekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin | Abian jarrita |
| 3.3.5 | Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat | Abian jarrita |
| 3.4.1 | Nazioartekotze-bekak | Abian jarrita |
| 3.4.2 | Global Training | Abian jarrita |
| 3.4.3 | Gazteak itzultzea bultzatzea | Diseinu-fasean eta/edo garatzeko finantzaketa lortzeko bidean |

| Kod. | EKIMENA | Egoeraren laburpena |
|---|---|---|
| 3.4.4 | Nazio Batuen proiektuak egiteko diru-laguntzak | Abian jarrita |
| 3.4.5 | Garapenerako lankidetza arloan espezializatzeko bekak | Abian jarrita |
| 3.4.6 | Laguntzak euskal kooperanteentzat | Abian jarrita |
| 4.1.1 | Metalaren sektoreko EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza (Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa) | Abian jarrita |
| 4.1.2 | Beste sektore batzuetako EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza | Abian jarrita |
| 4.1.3 | Prestakuntzarako bigarren aukera | Abian jarrita |
| 4.1.4 | Berrikuntza trebakuntzan: Ekintza berritzaileak gazteen enplegurako prestakuntzan | Diseinu-fasean eta/edo garatzeko finantzaketa lortzeko bidean |
| 4.1.5 | Enplegurako prestakuntza | Abian jarrita |
| 4.1.6 | Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin | Abian jarrita |
| 4.1.7 | Lan-orientabide generikoa | Abian jarrita |
| 4.2.1 | Landunentzako prestakuntza | Abian jarrita |
| 4.2.2 | Gaitasunak egiaztatzea | Abian jarrita |
| 5.1.1 | Enplegua bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan | Abian jarrita |
| 5.1.2 | Tokiko ekintzailetza bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (sortzea) | Abian jarrita |
| 5.1.3 | Tokiko ekintzailetza bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (sendotzea) | Abian jarrita |
| 5.1.4 | Kontratazioa laguntzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan | Abian jarrita |
| 5.1.5 | Ekintzak gauzatzeko laguntzak langabeziak bereziki eragindako toki-eremuetan, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan | Abian jarrita |
| 5.2.1 | Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak | Abian jarrita |
| 5.2.2 | Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea | Abian jarrita |

| Kod. | EKIMENA | Egoeraren laburpena |
|---|---|---|
| 5.3.1 | Egoera ahulean dauden taldeentzako enplegurako prestakuntza. | Abian jarrita |
| 5.3.2 | Enplegu-zentro bereziak | Abian jarrita |
| 5.3.3 | Laneratzeko enpresak | Abian jarrita |
| 5.3.4 | Desgaitasunak dituzten pertsonei enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak. | Abian jarrita |
| 5.3.5 | Sendotu | Abian jarrita |
| 5.3.6 | Baztertuta geratzeko arriskuan dauden 45 urtetik gorakoentzako orientabide espezifikoa | Abian jarrita |
| 5.3.7 | Enplegurako laguntzak merkatu arruntean | Abian jarrita |
| 5.3.8 | Zeinu-hizkuntzarako itzulpenak trebakuntza-ekintzetan | Abian jarrita |
| 5.3.9 | Enplegagarritasunerako proiektu eta esperientzia berritzaileak: Laida proiektua | Abian jarrita |
| 6.1.1 | Banakako birgaikuntzak eta jabeen erkidegoetakoak egiteko laguntzak | Abian jarrita |
| 6.1.2 | Birgaitze integraturako laguntzak | Abian jarrita |
| 6.2.1 | Birgaitze-lanak ikastetxeetan | Abian jarrita |
| 6.3.1 | Birgaitze-lanak osasun-zentroetan | Abian jarrita |

# 5- 2014/12/31ra ARTE EGINDAKO EKIMENEN SEGIMENDUA ETA DESKRIBAPENA

# 1. Ekintza-programa
# Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 1.1.1. Inbertsioa Finantzatzeko Babesa

Inbertsioa Finantzatzeko Babesen Programa, SPRIk kudeatuta, industria, merkataritza eta turismo alorreko ETEak lagundu eta finantzatzeko tresna integratua da. Horri esker, inbertsioak merkatuko ahalik eta baldintza onenetan egin daitezke, finantza-erakundeekin izenpetutako akordioen bitartez. Akordio horiek eragiketen finantza-kostua murrizten dute, ETEen ibilgetu ukiezin eta material berrien inbertsioa eta zirkulatzailea finantzatzeko asmoz mailegu-eragiketa eta finantza-errentamenduei aplikatutako interes-tasetarako hobaria emanez. Hobari hori ehuneko 1ekoa da lehen kasuan eta ehuneko 0,5ekoa bigarren kasuan. Epealdiak 1 eta 7 urte bitartekoak izango dira, kasu bakoitzaren arabera, eta ETE berak egindako inbertsioaren guztizko balioa ezingo da 1,5 milioi euro baino handiagoa izan.

Deialdia (SPRIren administrazio-kontseiluak 2014ko urtarrilaren 24an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen otsailaren 28an (41. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 14an amaitu zen. 580.000 euro banatu dira 121 enpresa laguntzeko eta 2.644 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

### 1.1.2. Bideratu programa

Bideratu programa berregituratze-prozesuan murgilduta dauden industria-proiektuak berriz bultzatzera bideratuta dago. Horretarako, epe luzera eta interesik gabe itzuli beharreko aurrerakinak ematen dira, krisian dauden enpresek beraiek egindako berregituratze-planetan jasotako neurriak gauzatzea sustatzeko, proiektuak bideragarriak, gizarte-akordioa oinarri dutenak eta jabearekin kostuak partekatzekoak badira.

Krisian dauden ETEek milioi bat euro arteko aurrerakinak eskuratu ditzakete, 5 urteko amortizazio-epearekin eta 2 urte arteko gabealdiarekin, gabealdiaren iraupena Berregituratze-planaren gauzapen-epeen araberakoa izango bada ere.

Deialdia (158/2014 Dekretuak, 2014ko uztailaren 29koak, arautzen duena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen irailaren 26an (183. zk) eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 31n amaitu zen. 3 espediente izapidetu dira, baina ez da inolako esleipenik egin, ez direlako baldintzak bete eta, ondoren, uko-egitea planteatzeagatik.

### 1.1.3. Partaidetza-maileguen LUZARO BEI programa, Europako Inbertsio Bankuak finantzatua

Luzaro sozietatea Eusko Jaurlaritza, Kutxabank, Banco de Sabadell, Laboral Kutxa, Bankoa eta ENISA (Empresa Nacional de Innovación) erakundeen artean eratu zen, eta horren helburua da kreditu parte-hartzaileak ematea, ETEen inbertsio eta berregituratze finantzarioa sustatzea. Europako Inbertsio Bankuarekin finantzazio-hitzarmena du, ETEentzako inbertsio eta kapital zirkulatzaileko proiektuak finantzatzeko, eta horiei epe labur eta luzera emango dizkie lehiakortasuna sendotzeko beharrezkoak duten funtsa.

Horri esker, ETEek 1.000.000 euroko finantziazioa lor dezakete (salbuespen gisa 1.600.000 euro ere), aktibo materialak (lursailak izan ezik), ez-materialak eskuratzeko eta bi urte baino gehiagorako antolatutako kapital zirkulatzailean inbertitzeko helburua duten inbertsioetarako. Halaber, Euriborra gehi 1,8 eta Euriborra gehi 3 arteko bitartean dagoen interes-tasa ordainduko dute, 10 urteko epealdian gehienez, eta 5 urtera arteko gabealdia eskura daiteke, mailegu parte-hartzaileen kasuan, eta 7 urteko epealdia (10 urtera arte luza daitekeena) eta 3 urtera arteko gabealdia finantza-finkapeneko maileguen kasuan.

2014ko ekainean finantza-lankidetzarako hitzarmeneko prezioen urteko moldaketa egin zen. Ekimen horrek 7.054.000 euro mugiarazi ditu baliabide pribatutan, 75 enpresa finantzatu eta 2.593 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

### 1.1.4. Hitzarmena finantza-erakundeekin, ETEen eta autonomoen finantzaketa sendotzeko

Hitzarmen hori Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat finantza-erakunderen artean izenpetu zen, eta finantza-erakundeak, Administrazioak bermeak eskaintzearen bitartez, finantzatzeko modu berri bat arautzea da. Horren helburua ETEen eta pertsona autonomoen finantzazio modu berri bat erraztea da, aktibo finko edo zirkulatzailea eskura dezaten. Akordio horren bitartez, partekatutako arriskuen bidezko abalak emango dira. Bertan, operazio bakoitzaren % 60 Eusko Jaurlaritzak hartuko du gain, eta gainerako % 40a finantza-erakundeek.

Hori gauzatzeko, 750.000 eurora bitarteko maileguak emango zaizkie ETEei eta 100.000 eurora bitartekoak norbanako eta profesional autonomoei, Euriborraren interes-tasari % 3 gehiago gehituta. Amortizazio-plana hiru hilerokoa edo sei hilerokoa izango da, eta epea 3 edo 5 urtekoa hautazko urte bateko gabealdiarekin, edo 7 urtekoa, hautazko 2 urteko gabealdiarekin.

2014ko otsailean gauzatu da hitzarmen-aldaketa (finantzaketa-lerroaren interes-tasa murrizten duena, Euriborra gehi % 3 izan arte), eta abalaren komisioen eta lerroaren kostearen zenbatekoak eguneratzen dituen zirkularra argitaratu. Ekimen horrek 16.045.000 euro mugiarazi ditu baliabide pribatutan, 89 enpresa finantzatu eta 1.711 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

### 1.1.5. ETE eta autonomoen zirkulatzailea finantzatzeko funts osagarria, Elkarrekiko Berme Baltzuak bermatuta

Funts horren helburua da enpresa txiki eta ertainei, norbanako enpresariei eta profesional autonomoei bankuen finantzazioa eskuratzen laguntzea, zirkulatzaile-beharrizanei erantzuteko, epe laburreko zorra berritzeko eta epe laburreko zorra epe ertain eta luzera egokitzeko.

Horretarako, 2013ko martxoaren 25ean lankidetza-hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Elkarrekiko Berme Baltzuen (ELKARGI, EBB eta OINARRI, EBB) eta 10 finantza-erakunde laguntzaileen artean. Eragiketa horien interes-tasa hamabi hileko Euriborrari % 3,5 gehituta izango da eta maileguen zenbatekoa 50.000 eta 650.000 euro artekoa izango da enpresa txiki eta ertainentzat eta 10.000 eta 100.000 euro artekoa norbanako enpresari eta profesional autonomoentzat.

Deialdia (Agindua, 2014ko otsailaren 11koa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen otsailaren 14an (31. zk) eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen. Ekimen horrek 43.211.000 euro mugiarazi ditu baliabide pribatutan, 304 enpresa finantzatu eta 5.432 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

### 1.1.6. Zailtasunak dituzten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitza

Programaren asmoa da honako ezaugarri hauek dituzten sozietate anonimoen edo mugatuen ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterlana egitea: galera-maila handia, negozio-bolumenaren murrizketa, izakinen gehikuntza, ahalmen handiegia, autofinantzaketarako marjina gordinaren gutxitzea, gero eta zorpetze handiagoa, finantza-gastuen igoera eta aktibo garbiaren ahultasuna edo desagerpena. Horren helburua da gizarte-ekonomiaren alorreko enpresak sustatzea.

Laguntza hori gauzatzeko, bideragarritasun-azterlanaren kostu garbiaren % 70 ere laguntzen da diruz, egindako azterlan bakoitzeko 3.000 euroko gehienezko kopuruarekin.

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 39.000 euro banatu dira zailtasunetan zeuden 13 enpresa laguntzeko eta 100 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

**1.1.7. Zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzeko kapital funtsa, langileek kapital sozialean parte hartuz (LANPAR funtsa)**

Lanpar funtsa kapital-arriskuko funts bat da, langileek enpresetako kapitalean parte hartzeko prozesuak laguntzera bideratuta dagoena. Hartara, enpresa berriak sortzea, ondorengotza-prozesuak eta, eredu parte-hartzailea oinarri hartuta, horiek garatu eta sendotzea sustatuko da.

Funts horretan parte hartzeko aukera duten enpresak honako hauek dira: negozioaren jarraipena ahalbidetzeko bazkideak ordezkatzea pentsatzen duten sozietateak; sortu berri diren sozietateak, bereziki berau osatzen duten pertsonen ezagueran oinarritzen direnak; zailtasunak dituzten enpresetan langileek negozio osoa edo zati bat gain hartu eta jabegoa hartzen dutenentzat; langileen partaidetza edo partaidetza-prozesu sakonagoen bitartez enpresa-masa hedatzea helburu duten enpresa txiki eta ertainak.

Funtsak bi inbertsio-modalitate hartzen ditu kontuan: a) kapital sozialean, langile multzoaren diru-ekarpena gorabehera, 100.000 eta 500.000 euroko inbertsio-bitartean, betiere funtsaren parte-hartzea ez bada amaierako kapital sozialaren % 30 baino handiagoa; eta b) mailegu parte-hartzailean, langile multzoaren diru-ekarpena gorabehera, 100.000 eta 500.000 euroko inbertsio-bitartean.

Halaber, funtsak aukera ematen du parte-hartze alorreko prestakuntza-programa bat egiteko zuzenbide-arloari, finantza-egoeren analisiari eta interpretazioari eta filosofia eta kudeaketa-sistema parte-hartzaileari buruz, hala nola enpresa-ereduaren aldaketan laguntzeko tutorea izateko.

Funts hori Eusko Jaurlaritzaren (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Saila eta Enplegu eta Gizarte Politikako Saila), eta ASLEren parte-hartzeari esker eratu da. Sorrerako zuzkidura 2013an egin zen, 2.500.000 eurokoa (2.000.000 euro Eusko Jaurlaritzaren eskutik eta 500.000 euro ASLEren eskutik). Funtsa 2014tik aurrera dago erabilgarri eta ekitaldi horretan 1.000.000 euroko ekarpena egin dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak.

2014an 2 proiektu aztertu dira, baina bietako batek ere ez zuen maila nahikoa inbertsioen batzordeak azter zezan. 2015ean proiektu gehiago aztertzeko asmoa dago.

### 1.1.8. Aurrezki pribatua bideratzeko zerga neurriak

Ekimen honen helburua da Foru Aldundiekin lankidetza gauzatzea, aurrezki pribatua euskal ETE eta autonomoetara eta lanpostu berriak sortzeko ahalmena duten start-up-etara bideratzeko aukera emango duten zerga-pizgarriak abian jartzeko.

Jarraian proposatzen diren zerga-neurriak Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Batzar Orokorretan 2013an onartutako Foru Arauen baitan daude, eta Gipuzkoan, berriz, 2014ko urtarrilean onartutakoetan:

- 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (2013-12-27ko ALHAO, 148. zk).
- 33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, Arabako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (2013-12-9ko ALHAO, 140. zk).
- 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Arabako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa (2013-12-13ko ALHAO, 238. zk).
- 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Bizkaiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (2013ko abenduaren 13ko BAO, 238. zk).
- 3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (2014ko urtarrilaren 22ko GAO, 13. zk).
- 2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. (GAO, 13. zenbakia, 2014ko urtarrilak 22)

Foru-arau horiek 2014ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean, ondorioetarako data horrekin.

Aurrezki pribatua bideratzeko zerga-neurrien baitan, honako aldaketak egin dira Tributu Arauan:

a) **PFEZ**-ean:

- Hiru lurraldeetan txertatu da merkatu antolatuetan kotizatzen ez duten enpresa sortu berri edo enpresa berrietan inbertsioa sustatzeko kenkaria. Berau, enpresa horietan eskuratutako akzio edo partizipazioen bidezko kopuruaren % 20 kenduko da, hainbat muga dituelarik (Araba eta Bizkaiko PFEZ Foru Arauaren 90. art, Gipuzkoako PFEZ Foru Arau proiektuaren 89.bis art.). Egindako aldaketak:
    - Araba: 20/2014 FA, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait foru tributu-arauren zuzenketa teknikoena (ALHAO, 72. zk, ekainaren 27koa).

- Bizkaia: 3/2014 FA, ekainaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbait foru tributu-arauren zuzenketa teknikoena (BAO, 114. zk, ekainaren 17koa).
- Gipuzkoa: 18/2014 FA, abenduaren 16koa, urtarrilaren 17ko 3/2014 FAri, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZren gainekoari, zuzenketa teknikoak eta bestelako zerga-aldaketak egitekoa (GAO, 242. zk, abenduaren 19koa).

b) **Sozietateen gaineko Zergan**:

- Ekintzailetza sustatzeko erreserba (53. art. 2d): Enpresa-proiektu berri bat garatzeko lehen fasean edo ondorengoetan eta hazteko aukera duten mikroenpresa eta ETEetako kapitalean parte hartzearen bidezko inbertsioa, inbertitzaile pribatu informal edo *business angels* deiturikoen bidez. Tributu-oinarriaren zenbatekoaren % 45 ere murritz daiteke, erreserbara atxikitzen diren irabaziengatik (mugekin).
- Beste erreserba batzuk: Enpresak kapitalizatzea bultzatzeko neurriak txertatzea, berezko funtsak hazi eta zorpetzera jotzeko beharra murriztea oinarri duten egituren trataera hobetzearekin lotuta (51. eta 52. art.). Egindako aldaketak:
  - Araba: 20/2014 FA, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait foru tributu-arauren zuzenketa teknikoena (ALHAO, 72. zk, ekainaren 27koa).
  - Bizkaia: 3/2014 FA, ekainaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbait foru tributu-arauren zuzenketa teknikoena (BAO, 114. zk, ekainaren 17koa).
  - Gipuzkoa: 17/2014 FA, abenduaren 16koa, urtarrilaren 17ko 2/2014 FAri, Gipuzkoako Lurralde Historikoko PFEZren gainekoari, zuzenketa teknikoak eta bestelako zerga-egokitzapenak egitekoa (GAO, 242. zk, 14-12-19) / 2/2014 FA, abenduaren 22koa, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-arloko aurrekontu-luzapenaren helmena zehazteko (GAO, 248. zk, abenduaren 30ekoa).

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

**1.2.1. Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak**

Ekimen horren helburua da merkataritza-banaketaren sektorearen profesionalizazioa hobetzen laguntzen duten beharrezko baldintzak sortzen laguntzea eta, horretarako, merkataritza alorrean profesionalak prestatzeko bekak emango dira. Beka horiek 32 urte baino gutxiagoko gazteei zuzenduta daude eta barne hartzen dute merkataritza-banaketaren kudeaketari buruzko berariazko prestakuntza-ikastaro bat eta Merkataritza Dinamizaziorako Bulego batean edo merkataritza-banaketarekin lotutako erakunde batean 12 hileko praktika-epealdia burutzea. Beka bakoitza 15.000 eurokoa izango da.

Deialdia (Agindua, 2011ko ekainaren 15ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 30ean (122. zk) eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 30ean amaitu zen. Guztira, 465.000 euro banatu dira, 31 beka emateko.

**1.2.2 Merkataritza-saltokiak modernizatzea**

MSM programaren helburua da merkataritza-saltokiak modernizatzera bideratutako inbertsio-proiektuak sustatzea, horien erreformarako beharrezkoak diren merkataritza-ekipamendu, obra zibil eta altzariak finantzatzearen bitartez.

Laguntza horiek % 15 edo % 20-ko itzulgarriarekin osatutako diru-laguntzen bitartez emango dira, orokorki, saltokiaren, altzarien eta ekipamenduaren erreforma eta modernizaziorako edo horien ekipo informatiko, aplikazio eta osagarriak erreformatu eta modernizatzeko diren arabera. Diru-laguntzen portzentajeak 2 eta 5 puntu bitartean hazi daitezke, enpresak kalitate edo enpresa-bikaintasuneko ziurtagiria baldin badu, eta elkarteren bati lotuta badago. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 12.000 eurokoa da, proiektu eta urte bakoitzeko.

Deialdia (Agindua, 2014ko ekainaren 25ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 127. zk, uztailaren 7an, eta irailaren 5ean itxi zen. 3.324.506 euro banatu dira 1.106 enpresa modernizatzen laguntzeko eta 3.373 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

### 1.2.3. EIKTak ETEetan txertatzea

ETEen barne-prozesuen eta bezeroekin, hornitzaileekin eta administrazioekin harremanetan jartzeko prozesuen digitalizazioa bultzatzera bideratutako programa da, hartarako EIKTak erabiliz haien lehiakortasuna errazteko eta sendotzeko, «HOBEKI +DIGITAL@» izeneko ekimenaren bidez.

Halaber, programak EIKTak enpresa-ehunean ezartzea errazten du, enpresa multzo batek garatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa- eta/edo profesional-elkarteen bultzatutako lankidetzarako proiektuak lagunduz, «LANKIDETZA +DIGITAL@» izeneko ekimenaren bidez.

Bi ekimenek premien diagnostikoa egitea eta EIKTak ezartzeko planak osatzea eta gauzatzea babesten dute, oro har, proiektuaren kostuen % 20 eta % 50 artean finantzatuz, 2.000 euroko (diagnostikoa eta plana osatzea) eta 12.000 euroko (jarduerak gauzatzea) gehienezko mugekin «HOBEKI +DIGITAL» ekimenean eta 33.000 euro artekoekin «LANKIDETZa +DIGITAL@» ekimenean.

Deialdia (SPRIren administrazio-kontseiluak 2014ko urtarrilaren 24an onartutako araudia) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen martxoaren 17an (52. zk), eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 30ean amaitu zen. 3.050.023 euro banatu dira 787 enpresa laguntzeko eta 14.049 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

*Oharra: hasiera batean, ekimena merkataritza-sektoreko ETEei zuzenduta zegoen. Hala ere, aurten lehendabizikoz abiarazitako programaren deialdiaren helmena eta ezaugarriak kontuan hartuta, egokiago iritzi zaio helmena jarduera-sektore guztietara hedatzea. Horrenbestez, 2014ko Ekintza Planean ezarritako aurrekontu-helburuak eta inpaktuak gainditu egin dira.*

### 1.2.4. Kalitate-ziurtagiriak merkataritzan

Merkataritza-banaketaren sektorerako berrikuntza- eta bikaintasun-programa honen helburua da merkataritza-enpresen kudeaketaren eta berrikuntzaren hobekuntza bultzatzea eta merkataritza sektoreko enpresen lehiakortasun-baliabideen sustapena eta ezagutza erraztea.

Laguntzen helburua, batetik, merkataritza-berrikuntza ezagutzera emateko eta bultzatzeko jarduerak gauzatzea da, jardunaldi teknikoak, mahai-inguruak, tailerrak eta mintegiak antolatuta eta hizlarien kontratazioaren, jardueraren promozioaren eta erabiliko den dokumentazioa osatzearen ondoriozko gastuen % 80 arte finantzatuta, gehienez 1.700 euro jarduerako eta 7.000 euro urtean egindako jarduerako emanda.

Bestetik, Merkataritza Bikaineko Programak (maila ertainekoak eta brontzezko Q-ren parekoak) garatzeko proiektuak erraztea, kanpo-aholkularitzaren gastuen % 90 arte finantzatuta, 3.180 euro enpresako gehienezko mugarekin, eta honako hauek barne hartuta: hobekuntza-prozesu osoa gainbegiratzea tutoreak (gehienez, 400 euro), tutoreak lagundutako autodiagnostikoa (gehienez, 200 euro) eta tutoreak emandako prestakuntza (gehienez, 2.580 euro).

Deialdia (Agindua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 2011ko uztailaren 27koa, 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez aldatu zena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 28an (162. zk), eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 31n amaitu zen. 84.394 euro banatu dira 37 enpresari dibulgazio, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuneko jarduerak gauzatzen laguntzeko eta 113 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

Halaber, Bikaintasunerako Euskal Fundazio Euskalitekin lankidetza-hitzarmen bat izenpetu da, kudeaketa aurreratuko programa bat finantzatzeko asmoz. 222.315 euro banatu dira 196 enpresa laguntzeko eta 598 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da.

### 1.2.5 Lehiakortasun turistikoa bultzatzeko laguntzak

Turismo-lehiakortasuna sektorean aberastasuna eta enplegua sortzeko elementu modura sustatzeko asmoz, turismo-kalitatean jomugetan praktika egokiak bultzatzeko programak ezarri eta garatzen parte hartzen duten enpresak lagunduko dira, baita IKT praktika egokiak dituzten enpresak ere. Praktika egokiak ezartzeko programa horiek turismo-lankidetzarako erakundeek kudeatzen dituzte, eta langile teknikoen gastuak turismo-sektorera bideratutako laguntzen esparruan laguntzen dira diruz.

Deialdia (Agindua, 2014ko ekainaren 18koa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 27an (121. zk) eta eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 6an amaitu zen. 1.267.926 euro eman dira (2015ean ordainduko dira), eta horiei esker 866 enpresak parte hartu dute jardunbide egokien programetan. Horrez gain, 3.663 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatzen da. Gainera, aurreko urteko deialdian ordaindu ez ziren 408.272 euroak ordaindu dira.

### 1.2.6 Enpresa turistikoak modernizatzeko eta hobetzeko laguntzak

Programa horren helburua da turismo-enpresentzako laguntzak ematea, berrikuntza teknologikoak ezartzeko, IKTak barne, kudeaketa- eta merkaturatze-prozesuetan, azpiegiturak eta zerbitzuak zaharberritzeko, eta turismo-eskaintza Euskadiko turismo-irisgarritasunaren eredura egokitzeko.

Laguntza horiek diru-laguntza ez-itzulgarrien bitartez emango dira eta zenbatekoa jarduketa-motaren arabera aldatuko da: inbertsio garbiaren % 20 ekipamendu informatiko, horien osagarri eta aplikazioak lortzeko; inbertsio garbiaren % 30 zerbitzuak Euskadiko turismo-irisgarritasunaren eredura egokitzeko; eta inbertsio garbiaren % 15 saltoki, altzari edo ekipamendua erreformatu eta modernizatzeko. (Portzentaje horik % 5 haz daitezke, enpresak irisgarritasun berdearen zigilua badu, kalitate-ziurtagiriren bat badu, Basquetour-ek garatutako praktika egokien programetan parte hartu badu edo turismo-elkarteren bateko kide baldin bada). Kasu guztietan, laguntza bakoitzeko gehienezko zenbatekoa 12.000 eurokoa da.

Deialdia (Agindua, 2014ko ekainaren 11koa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 27an (121. zk) eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 28an amaitu zen. 661.883 euro banatu dira 195 enpresa modernizatzen laguntzeko eta 2.246 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

*Oharra: Inpaktuari buruzko datu objektiboaren estimazioa egin da iturri estatistiko ofizialetan (Eustat: 3,05 enplegu establezimenduko) jasotako turismo-establezimenduen batez besteko tamaina oinarritzat hartuta, bestelako informazio zuzenik ez baita eskuratu. Gerora bildutako datu errealek islatzen dutenaren arabera, batez besteko tamaina 10,07 enplegu establezimenduko da; alegia, inpaktua enpleguan nahitaez izan behar da estimaziokoa baino handiagoa.*

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 1.3.1. Leader programa

Leader programaren helburua da landa-ekonomia dibertsifikatzeko eta landa-eremuetan bizitzaren kalitatea hobetzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematea, Landa Garapen Jasangarriko Programaren esparruan mikroenpresak sortuz eta garatuz, besteak beste, eta landa-eremuko biztanleen enpresa-espiritua eta trebakuntza sustatuz.

Mikroenpresen sorreren kasuan, proiektu eta obra-zuzendaritzaren ondoriozko gastuak, hirigintza- eta eraikuntza-obren egikaritze-materiala eta makineria, tresneria, altzariak, ekipo informatikoak eta komunikazio-ekipoak eta bestelako azpiegiturak eskuratzea lagunduko da. Garapen eta modernizazioaren kasuan, helburu hori duten inbertsio material edo ez-materialak lagunduko dira. Orokorrean, emandako laguntzen portzentajea gastu hautagarrien % 70 ere izan da.

Deialdia (185/2008 Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 22an (158. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 22an amaitu zen. Horren ebazpena 2015eko urtarrilaren 23an eman denez, deialdia 2015eko aurrekontuaren kontura finantzatuko da. Halaber, aipatu behar da programa honek babestutako inbertsio-jarduerak ez direla deialdiko ekitaldian zehar erabat gauzatzen, denboran luzatzen dira, nahiz eta ez diren konpromiso-kredituriK izendatu. Deialdiak 1.000.025 euroko aurrekontua du, 40 mikroenpresen artean banatuko dena (horietatik 5 sortu berriak), eta 40 lanpostu sortzen lagunduko du.

### 1.3.2. Erein programa

Erein programaren helburua da landa-eremuetako sustapen- eta garapen-jarduera eta -inbertsioak finantzatzen laguntzea, gune horietan lanpostuak sortzen.

Laguntza horiek honako hauei zuzenduta daude: alde batetik, inoiz lanposturik izan ez edo aurretik zuten lanpostua galdu duten pertsonak besteren kontura kontratatzen dituztenei eta, bestetik, jarduera independenteak sortzen dituztenentzat, hau da, langile autonomoak txertatzea sustatu edo gizarte-ekonomiako araubide juridikoan (besteak beste, lan-elkartuko kooperatibetan) txertatzen diren enpresei.

Enpresa batek sortzen duen lanpostu bakoitzeko laguntzen gehienezko zenbatekoa, orokorrean, 5.592 eurokoa izango da. Zenbateko hori 6.102 eurora arte ere igo daiteke, epe luzeko langabezia duten pertsonak, familia-zamak dituzten emakumeak edo minusbaliotasuna duten pertsonak kontratatzen badira. kontratazio hori, gutxienez, bost urteko epealdirako baldin bada betiere. Edonola ere, laguntzek ez dute kontratatutako pertsonaren 2 urteri dagokion soldata gordinaren % 35a gainditu, hau da, zerga eta beharrezko gizarte-kotizazioak kalkulatu baino lehen. Emandako laguntzak behin-behinekoa izango dira, hau da, behin emango da sortutako lanpostu berri bakoitzeko.

Deialdia (171/2008 Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 22an (158. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 22an amaitu zen. Horren ebazpena 2015eko urtarrilaren 23an eman denez, deialdia 2015eko aurrekontuaren kontura finantzatuko da. Halaber, aipatu behar da programa honek babestutako inbertsio-jarduerak ez direla deialdiko ekitaldian zehar erabat gauzatzen, denboran luzatzen dira, nahiz eta ez diren konpromiso-kredituirik izendatu. Deialdiak 1.800.000 euroko aurrekontua du, 40 mikroenpresen artean banatuko dena (horietatik 32 sortu berriak), eta 40 lanpostu sortzen lagunduko du.

**1.3.3. Itsaspen programa**

Itsaspen programari esker, itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzea bultzatzen da, biztanleriaren oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko, eta kostaldeko herriak biziberritzen eta berritzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko, enpresak eta autoenplegua sortuz, zabalduz eta zaharberrituz, besteak beste.

Enpresen sorrera, hedatze eta modernizaziorako laguntzak izaera berritzailea duten edota IKT oinarria duten mikroenpresei zuzenduta daude, lehentasunez itsasoari eta arrantzari lotutakoei, suspertzen ari diren sektoreen aldeko apustua egiteko. Proiektu eta obra-zuzendaritzaren ondoriozko gastuak, hirigintza- eta eraikuntza-obren egikaritze-materiala eta makineria, tresneria, altzariak, ekipo informatikoak eta komunikazio-ekipoak eta bestelako azpiegiturak eskuratzea lagunduko da. Laguntzak kostuen % 20 eta % 60 artean estaliko du, proiektuen balorazioaren arabera.

Bestalde, itsasertzeko guneetan langile autonomoen lanpostuak sortzea sustatuko duten jarduera independenteak sortzen lagunduko da. Laguntzak behin bakarrik emango dira, sortzen den lanpostu bakoitzeko, eta 5.592 eurokoak izango dira. Lanean hasten direnak langabezian luzaro egondako pertsonak, beren ardurapean senideak dituzten emakumeak edo ezintasunen bat duten pertsonak badira, berriz, laguntzak 6.0102 eurokoak izango dira.

Deialdia (22/2012 Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 22an (158. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 22an amaitu zen. 296.333 euroko finantzazioa ematea kalkulatzen da, 9 mikroenpresa sortzen laguntzeko, eta horiek 9 lanpostu sortzen lagunduko dute.

### 1.3.4 Landa-turismoko establezimenduetan inbertsioak egiteko laguntzak

Programaren helburua da inbertsioa sendotzea landa-turismoko establezimenduetan, barne hartuta irekiera berriak, dauden establezimenduak handitzeko lanak eta/edo horietan egindako hobekuntzak, turismo arloko eskumena dagokion Sailak emandako irekiera-lizentzia aldatzea dakartenak.

Laguntzek honakoak barne hartzen dituzte: obrak egiteko eta zuzentzeko proiektua idaztea, urbanizazio-, eraikuntza- eta birgaikuntza-obrak gauzatzea eta altzariak nahiz ekipamendua erostea. Babestutako inbertsioaren gehieneko zenbatekoa 150.00 euro da; gehienez, inbertsioaren % 40ko mugarekin.

Deialdia (184/2008 Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 11n (109. zk) eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 11n amaitu zen. 33.161 euroko finantzazioa ematea kalkulatzen da, 4 mikroenpresa berriri eta lehendik diharduten 3ri inbertsioetan laguntzeko, eta horiek 7 lanpostu sortzen lagunduko dute.

### 1.3.5 Garapen eta ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean

Beka horien helburua da gazte ikertzaile eta teknologoen prestakuntza honako alor hauetan: zientifiko-teknologikoa, merkatuak, arrantza eta elikaduraren euskal sektorean marketina eta enpresa-antolakuntza. Horrez gain, sektore horretarako lehentasunezkoak diren gaietan tituludun gazteen trebakuntza eta espezializazioa sustatu nahi da, doktoretza-tesiak edo ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzari buruzko proiektuen garapena bultzatuta. Proiektuak ikerketa-zentro eta enpresa pribatuetan egiten dira.

Laguntzak bi programen bidez ezartzen dira:

- Prestakuntzan dauden ikertzaileak: elkarren segidako 4 urteko eperako beka, urteko 14.000 euroko laguntza beka-epealdian, eta urteko 2.000 eurorainoko laguntza osagarria, doktoretza-ikastaroetan izena emateko, kongresu, jardunaldi eta antzekoetara bertaratzeko.

- Teknologoak: elkarren segidako 2 urteko eperako beka, urteko 12.000 euroko laguntza eta urteko 1.000 eurorainoko laguntza osagarria.

Deialdia (185/2007 Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 13an (194. zk) eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 13an amaitu zen. 662.927 euro eta 16 beka eman dira.

### 1.3.6. Gaztenek. Gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko programa

Gaztenek Eusko Jaurlaritzak eta hiru Aldundiek sustatutako ekimena da. Horren helburua da gazte nekazariak nekazaritza-sektorean sartu eta bertan mantentzen laguntzea, eta jada nekazaritza-jardueran dabiltzan gazteei jarduerari eusten laguntzea. Programak gazteak nekazaritza-sektorean ustiapen berri baten bidez lehen aldiz ezartzea lagunduko du, hark erretiratutako norbait edo aldez aurretik jarduera eten duen norbait ordezkatzen badu edo aurretik zegoen ustiapen batera bazkide modura txertatu bada. Halaber, programak aholkularitza eta laguntza pertsonalizaturako zerbitzua eskaintzen du.

Lehen ezartzea laguntzeko neurriak honako hauen bidez egingo dira: hazi-kapitala, lehen ezartzera begirako nekazaritza-politika komunitarioa, interes baxuko kreditu espezifikoak, sektorera hurbiltzeko bekak, zerga-laguntzak, belaunaldi-aldaketa sustatzeko laguntzak eta nekazari gaztearen Estatutua. Laguntza horien gehienezko zenbatekoa 70.000 eurokoa izango da, lan-unitateko eta urteko.

Laguntza lehenengo hiru urteetan zehar proiektua tutorizatu eta monitorizatzearen bidez emango da, goi-mailako kualifikazio teknikoa eta sektorearen errealitatearen gaineko ezaguera zabala duten profesional-taldeak etengabeko aholkularitza pertsonalizatua eskainiko du. Laguntza horien gehienezko zenbatekoa 7.200 eurokoa izango da, pertsonako eta urteko, eta zenbateko horren herena epe horretan proiektuaren gutxieneko bideragarritasuna lortzeak baldintzatuko du.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuak arautzen ditu laguntza horiek. Nekazari gazteak jarduten hasteko Espainiako laguntza osagarrien guztizko zenbatekoa jakitera ematen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 3an (188. zk), eta Foru Aldundien deialdietan aurkeztutako eskabideen araberakoa da. 2014an zehar, programak 700.000 euroko laguntza eman du, 35 gazteri nekazaritza-sektorean jarduten hastea ahalbidetuz.

# 2. Ekintza-programa
# Ekintzailetza sustatzea

## ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK

### 2.1.1. Ekintzailetza-legea garatzea. Leihatila bakarra eta administrazio-izapideak sinplifikatzea

Estatuko Administrazio Orokorrak leihatila bakarren sarea eratu zuenetik, asko egin da aurrera Euskadin ildo horretan, eta egun hiru lurraldeek eskaintzen dituzte ekintzaileari enpresa-sorrerako beharrezko izapide guztietan aholkua eta laguntza emateko zerbitzuak, oro har, «leihatila bakarra» izenarekin ezagutzen direnak. Zerbitzu horiek bere osotasunean eskaintzen dituzte, hainbat Ekintzaileari Arreta emateko Punturen bidez: Araban, Arabako Eraberrikuntza-industrialdea eta Arabako Merkataritza Ganbera; Bizkaian, BEAZ, Ezkerraldeko Enpresen Garapen Zentroa, DEMA eta Bilboko Merkataritza Ganbera; eta Gipuzkoan, BIC BERRILAN, SAIOLAN eta Gipuzkoako Merkataritza Ganbera.

Gainera, eta herritarren premiei arreta emateko ahal beste bide erabiltzea xede dutenez, Foru Aldundiak sistema telematikoak garatzen ari dira ekintzaileei arreta emateko, oraindik eta errazagoa gerta dakizkien sarbidea eta beharrezko izapideak. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak dagoeneko abian du enpresa berrien alta ematea erabat telematikoki kudeatzeko aukera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak laster abiaraziko du zerbitzu hori bera.

2014ko maiatzaren 14an, Ekintzailetzako Erakunde-arteko Mahaia eratu zen, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legeak ezarritakoa betez. Horren baitan abiarazi ziren hainbat lantalde, tartean, 5. lantaldea, administrazio-sinplifikazioarena, 2.1.1 ekimenari buruzko gaiak landuko direna. Lantaldea 2014ko ekainaren 17an bildu zen aurrenekoz. Ondoren, irailaren 16an.

### 2.1.2. Ekintzailetza sustatzea SPRIren bitartez

Kultura ekintzailea sustatzeko hainbat ekimen gauzatzen dira, tartean, ekintzaileentzako prestakuntza-jardunaldia antolatzea eta ekintzaileei eskainitako «UP! Euskadi» webgunea sortzea, baita Ekintzailetzaren Euskal Zerbitzua bera ere, Euskadiko ekintzailetzari buruzko informazio guztia zentralizatzen duena, ezagutza partekatzeko eta proiektuak garatzeko sarea eratuz, ekintzailetza laguntzeko indarreko zerbitzu eta programa guztien gaineko informaziorako sarbidea erraztearekin batera.

2014an zehar, ekintzailetzari buruzko webguneak 48.692 bisita jaso ditu.

### 2.1.3. DEMA Bizkaia programa (sentsibilizazioa)

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua DEMA enpresa-garapenerako agentziarekin elkarlanean ari da, Bizkaiko gazteen enplegua sustatzeko, bereziki, langabezia-tasa altua duten guneetan. Programa horren helburua da ekintzailetza sustatzea, gaur egungo haurrek eta gazteek etorkizunean beren enpresa-proiektuen buru izateko aukera izan dezaten ekintzailetza-abileziak hezkuntza-sisteman bertan lantzea.

2011n adostutako hitzarmenak indarrean dirau. 2014an zehar, programak 323.053 euroko laguntza izan du, eta ekintzailetza-kultura sustatzeko hainbat ekintza garatzen lagundu du.

### 2.1.4. Ekintzailetzari laguntzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bitartez

Enpresa eta Berrikuntza Zentroek ekintzailetza-ekimenak merkatura sartzen lagundu eta bideratzen dituzte. Lehentasuntzat ekimen berritzaileak eta oinarri teknologikoa dutenak hartzen dituzte eta ekintzailetza-kultura sortzen laguntzen dute. Sozietate horiek, EAEko puntu geografiko ezberdinetatik, proiektuak antzeman eta abian jartzeko zerbitzuak, bideragarritasun-planak egiteko aholkularitza, enpresa-prestakuntza eta aldeko baldintzetan enpresa berriak kokatzeko laguntza eta azpiegiturak eskaintzen dituzte.

Ekimen honek 1.190.537 euroko laguntza izan du eta 97 ekintzaile laguntzeko bideratu dira.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

**2.2.1. Langabezia kapitalizatzea enplegu autonomoa sortzeko**

Lanbideren programa horrek 1994ko apirilaren 13ko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Aginduan (1044/1985 Errege Dekretuan) aurreikusitako diru-laguntzen finantziazioari zuzendutako baliabide ekonomikoak izendatzea du helburu. Diru-laguntza horrek langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituzten pertsonei Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzean datza, ordainketa bakarrean. Hartara, langabeziatik datorren enplegu autonomoa sortzen lagunduko da, autonomoen gutxieneko kuotaren % 50 ordainduko da edo langileak Gizarte Segurantzan duen kuotaren % 100. Onuradun bakoitzeko hobariaren gehienezko zenbatekoa hileko 132 eurokoa izango da eta epealdia kapitalizatutako denborak irauten duena izango da.

Programa horretan parte har dezaketen kolektiboak honako hauek dira: modu egonkorrean kooperatiba edo lan-sozietateetan lan-bazkide modura txertatzeagatik laguntzak jaso dituztenak, autonomo modura alta ematen diren gazte eta % 33-ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak, eta 30 urte baino gutxiago izan eta jasotako laguntza sortu berri den merkataritza-erakunde edo merkataritza-erakunde berri bateko kapital sozialera bideratzen dutenak, izaera mugagabeko lan-jarduera garatzen badute betiere.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko otsailaren 3ko saioan onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen otsailaren 13an (30. zk), eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen. Horren bidez 367.214 euro banatu dira 541 enpresa-ekimen berriak finantzatzeko eta 541 lanposturi eusten lagundu da.

**2.2.2. «Enpresa ideia» bat garatzeko laguntzak ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan**

Laguntza horiek ekintzaileak izan daitezkeen 25 urte edo gehiagoko pertsonei zuzenduta daude, ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa-ideia bat sortzen, aztertzen eta egituratzen bakar-bakarrik aritu daitezen. Aldi berean, ekintzailetzari loturiko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea errazten da, aholkularitza- eta laguntza-jardueren bidez.

Programa horretako parte-hartzaileek beren enpresa-ideia aztertzeari eta garatzeari lanaldi osoa eskaintzeko konpromisoa hartzen dute, hala nola enpresa-ideia sortu eta garatzeko aholku- eta laguntza-jarduera guztietan parte hartzekoa. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 1.500 euro proiektuko izango da eta jarduerek, gutxienez, 3 hilabeteko iraunaldia izango dute.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 247.500 euro eman dira 165 ekintzailetza-proiektu laguntzeko.

### 2.2.3. Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa ekimen berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak

Laguntza horiek ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan zehaztutako negozio-ideia jakin bat duten 25 urte edo gehiagoko ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzera bideratuta daude, enpresa- edo negozio-proiektu bat abiarazteko beharrezko tutoretza- eta laguntza-ekintzen bitartez. Ekintza horien iraupena 3 hilabetekoa izango da.

Programa horretan parte hartzen duten pertsonek lanaldi osoa enpresa abiaraztera bideratzeko, enpresa ezartzeko aholkularitza eta laguntza-jarduera guztietara bertaratzeko eta negozioa abiarazteko tutorizazio eta laguntza-prozesua amaitu eta 3 hilabeteko gehienezko epean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko konpromisoa hartzen dute. Emango den diru-laguntza, gehienez, 1.500 euro proiektuko izango da.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 85.500 euroko finantzaketa eskainiko da, laguntzaren lehen ordainketa egiteko (% 50). Bigarrena, 2015ean egingo da (gainerako % 50a). Finantzaketa horren bidez, 114 enpresa eta 114 lanpostu sortzen lagunduko dela kalkulatu da.

### 2.2.4. Enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak, ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan

25 urte edo gehiagoko ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatu eta sendotzera bideratuta daude laguntza horiek, enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar badute.

Laguntza horrek barne hartzen ditu enpresaren eguneroko kudeaketan aholkularitza emateko eta laguntzeko gastuak, bai eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide bereziari dagozkion 6 hilabeteko kotizazio-kostuak ere. Emango den diru-laguntza, gehienez, 3.000 euro pertsonako izango da.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 981.000 euroko finantzaketa eskainiko da, laguntzaren lehen ordainketa egiteko (% 60). Bigarrena, 2015ean egingo da (gainerako % 40a). Finantzaketa horren bidez, 545 enpresa eta 545 lanposturi eusten sortzen lagunduko dela kalkulatu da.

### 2.2.5. Bizkaiko DEMA programa (mikroekintzailetzak laguntzea)

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua enpresa-garapenerako DEMA agentziarekin elkarlanean ari da, aukeragatik nahiz beharragatik mikroekintzailetza lan-munduan txertatze eta lanpostuak sortzeko pentsatzen ari diren pertsonen artean ekintzailetza sustatzeko. Horretarako, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua eskaintzen da proiektu berrien bideragarritasuna aztertzeko, negozio-planak egiteko eta enpresa berriak abian jartzeko.

2011n adostutako hitzarmenak indarrean dirau. 2014an zehar, programak 323.053 euroko aurrekontua izan du eta 188 mrikroenpresa eta autonomo berri eta 225 lanpostu sortzen lagundu du.

### 2.2.6. Mikrokreditu-programa

Programa horren helburua da mikrofinantziazioan adituak diren erakundeekin hitzarmenak egitea, mikroekintzailetzek behar duten finantziazioa lor dezaten, finantziazioaren bermeak (proiektuaren bermea) eta kostua onartzeko modukoak izanik. Horrez gain, mikroekintzailetzen finantziazio- eta laguntza-aukera horien berri ere eman nahi du, aukera hori baliatzeko. Helburu nagusia ekintzailetzari emandako babesa sendotzea da, ekintzaileei finantzaketarako sarbidea erraztuko dien bitarteko berri bat eskainita.

2013an zehar, erakunde adituekin lankidetza-hitzarmena sinatzeko negoziazioari ekin zaio, mikrokreditu horiek bete beharreko gutxieneko baldintzak arautzeko. Horrez gain, laguntzen oinarriak garatzen hasi dira, ekintzaileek eragiketei aplika dakizkiokeen interes-tasetan murrizketak izan ditzaten. 2014an, programaren lehen deialdia egin da, eta 4 finantza-erakunderekin lankidetza-hitzarmenak izenpetu (Kutxabank, Laboral Kutxa, La Caixa eta Caja Navarra).

Programa horren barneko finantzaketa-eragiketak mailegu zein finantza-errentamendu motakoak izan daitezke, eta enpresa sortu berriak abiarazteko beharrezkoak diren aktiboak (Kontabilitateko Plan Orokorraren 210. eta 219. arteko kategoriak) eskuratzeko hasierako inbertsioa finantzatzera bideratu behar dira.

Mailegu eta finantza-errentamendu horiek honako ezaugarri hauek dituzte: gehieneko zenbatekoa, 50.000 euro sustatzaileko (proiektuaren inbertsioaren % 95 gainditu gabe); gehieneko epea, 5 urtekoa (6 hilabeteko hasierako gabealdia barne, maileguetan); eta, gehieneko interes aplikagarria, % 7 UTB (komisio eta gastu guztiak barne). Nabarmendu behar da ez dela inolako bermerik edo abalik behar eta ez dela azterketa- edo irekiera-komisiorik aplikatuko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, finantza-eragiketari aplikagarri zaion interesaren eta ekintzaileek ordaindu beharreko interes-tasa efektiboaren (% 4) arteko aldearen baliokidea izan behar da. Maileguaren edo finantza-errentamenduaren hasierako kapitalaren amortizazioari aplikatuko zaio zenbateko hori eta interes-tasaren hobaria ezingo da izan eragiketa gauzatu den interes-tasa baino handiagoa. Programa horren babesean egon nahi duten ekintzaileek enpresa- edo negozio-proiektu bat izan behar dute, horren bideragarritasun-txostena aurkeztuta, eta bere enpresa sortu eta lanaldi osoa jarduera berriari eskaintzeko eta jarduera horri JEZen alta eman ondotik 2 urtez eusteko konpromisoa hartu beharko dute.

Programa horren lehen deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak irailaren 29an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 8an (19. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaitu zen.

Abenduaren 31n, aurkeztutako proiektuak 20 izan dira; 7 onartu dira, eta 13 baztertu (proiektuetako bat ere ez dago balorazio- edo azterketa-fasean). Laguntzen zenbatekoa 3.880 eurokoa izan da eta onartutako 7 proiektuek 117.200 euroko finantzaketa pribatua jaso dute, hasiera batean, 10 lanpostu sortzea ekarriz.

### 2.2.7. Belaunaldi-aldaketa programa

Ekimen horrek mikroenpresetan, ETEetan eta autonomoetan kudeaketa edota jabegoaren ondorengotzari buruzko hausnarketa-prozesuak laguntzen ditu. Horrez gain, prozesu horiek modu ordenatuan egitea du helburu, enpresen jarraipena eta, beraz, lanpostuei eustea bermatzeko. Horretarako, SPRIk «Ondorengotza enpresa txiki eta ertainean» programa abian du.

Programaren helburua da enpresetan ondorengotza modu ordenatu eta planifikatuan egiten laguntzea, horren garapen eta jarraipena bermatzeko eta ahalik eta lanpostu gehienei eusteko. Horretarako, kanpoko aholkulariak kontratatzea laguntzen da diruz, haiek arduratuko baitira enpresaren kudeaketa, gobernu eta jabegoari buruzko aurretiazko diagnostikoa egiteaz eta ondorengotza-protokoloa egin eta ondoren formalizatzeaz, baita protokoloa abian jarri eta aldizka berrikusteaz ere. Laguntzen zenbatekoa aholkularitza-gastuen % 30 da, eta gehienez 1.000 euro diagnosirako, 10.000 euro protokolorako eta 4.000 euro laguntzarako bideratuko dira.

Deialdia (SPRIren administrazio-kontseiluak 2013ko martxoaren 22an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen apirilaren 24an (78. zk) eta urriaren 30era arte egon da irekita.

33 enpresa lagundu dira eta 747 lanposturi eutsi ahal izan zaio, baina deialdi horri dagozkion ordainketak izapidetu gabe zeuden 2014ko abenduaren 31n, enpresek oraindik ez zituztelako diagnostikoaren, protokoloa osatzearen eta ezartzearen faseak erabat bete. Hala, 2014an, aurreko deialdietako proiektuen 2012tik aurrerako ordainketak izapidetu dira; guztira, 129.760 euro.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 2.3.1. Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea. Basque Funtsa.

Eusko Jaurlaritzaren eta SPRIren partaidetza duen arrisku-kapitaleko funts hori informazioaren teknologia berrien erabilera intentsibo eta estentsiboa duten enpresa berritzaileen lehen faseak finantzatzera zuzenduta dago. Horren helburua da enpresa berritzaile gazteak abiarazi eta garatzeko faseak laguntze da. Horretarako, horien kapitalean partaidetza txiki bat hartuko da, kapitalean edo 300.000 eta 500.000 euro bitarteko ekarpenekin kreditu parte-hartzaileak txertatuta.

2013an zehar, Ekintzaile XXI Funtsa programa aurretik zegoen Basque Funtsera gehitu da. Funts horren zuzkidura 28 milioi eurokoa da. Horietatik 5 milioi ekintzailetza aurreratu, industrial berritzaile edota teknologikora bideratu dira. Arrisku-kapitalaren bidez izapidetzen da, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren onarpenarekin. Funtsa uztailean hasi zen jardunean eta dagoeneko egin dira lehen bilerak, lurralde historikoko bana, datozen ekitaldietarako prozesua ere abiarazita, urtean hiruzpalau bilera egiteko aurreikuspenarekin.

2014an, 9 eragiketa onartu dira (9 enpresa) eta 27 lanposturi eusten lagundu dela kalkulatu da. Dagokion ordainketa 2015ean egingo da, ezin izan delako amaitu 2014an eragiketak onartu ondotik abiatzen den negoziazio-prozesua, balorazioak, enpresa merkaturatzea, etab., aztertzen direna.

*Oharra: Hasiera batean, inpaktua enpresa berriek eta enplegu-sorrerak jasatea espero zen, enpresa sortu berriak izaki (eratu zirenetik 3 urte baino gutxiago igaro dira). Alabaina, enpresok funts horretarako sarbidea izateak Ekintzaile programaren onuradun izan direla esan nahi duenez, aipatutako inpaktua birsailkatu egin da, lehendik zeuden enpresek jasango baitute eta enpleguari eusten lagunduko baitie.*

### 2.3.2 Ekintzaile

Ekintzaile programaren helburua da industria-izaera berritzailea duten enpresa-proiektu berrietarako edo lotutako zerbitzuak finantzatzea, Enpresa eta Berrikuntza Zentro (CEI) batek babestuak, ideia umotzeko eta enpresa abian jartzeko faseetarako. Babes hori bi laguntza moten bidez gauzatzen da:

- Ideia umotzeko prozesuan pertsona edo talde gidariari laguntzea, eta enpresa-plana egitea, enpresa abian jarri arte. Itzuli beharrik gabeko laguntza honek aholkularitza/laguntza-gastuen % 100 ordaintzen du, 30.000 euroko gehieneko mugarekin.

- Enpresa abian jartzeko beharrezko inbertsioen finantziazioa eskuratzeko aukera, mailegu-eragiketen finantza-kostua murriztuz eta Luzarorekin adosten den hitzarmenaren arabera. Maileguak 40.000 eta 180.000 euro bitartekoak izango dira, interes-tasa sei hilabeteetarako Euriborrari 1,25 gehituta izango da eta amortizazio-plana 7 urtera artekoa ere izan daiteke.

Deialdia (SPRIren administrazio-kontseiluak 2014ko martxoaren 31ko saioan onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen apirilaren 14an (72. zk), eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen. 1.250.000 euro banatu dira 97 enpresa laguntzeko eta 291 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

### 2.3.3 Gauzatu Industria

Gauzatu Industria programaren helburua oinarri teknologikoko ETEak nahiz ETE berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzea da, lehiakor izateko estrategia gisa, enplegua sortzeko inbertsioa lagunduz.

Laguntza horiek oinarri teknologikoko industria-enpresei edota enpresa berritzaileei zuzenduta daude, gutxienez 120.000 euroko inbertsioa egingo duten proiektuentzat eta gutxienez 3 lanpostu sortuko dituztenentzat, 36 hilabeteko epean. Aurrerakin itzulgarrien bitartez ematen dira laguntzok, eta helburua da enpresaren aktiboetara gehituko diren enpresaren gizarte-xedea osatzen duen jarduerarekin zuzeneko lotura duten aktibo finkoak eskuratzea. Laguntzen zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 35ekoa ere izan daiteke, sortutako lanpostu bakoitzeko gehienez 120.000 euroko laguntzak emango direlarik, eta gehienez, osotasunean, enpresako 1.500.000 euro emango dira.

Deialdia (Agindua, 2007ko maiatzaren 21ekoa, 2007ko maiatzaren 21ean aldatua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 9an (107. zk) eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 11n amaitu zen. 11.683.025 euro banatu dira 7 enpresa berri eta lehendik zeuden 37 enpresa laguntzeko eta 531 lanpostu sortzen lagundu duela kalkulatu da.

### 2.3.4 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko laguntza osoa ematea

Programa horren helburua da Gizarte-ekonomiako enpresak eratu eta sustatzen laguntzea. Alde batetik, gizarte-ekonomiako enpresak (kooperatibak eta lan-sozietateak) eratzeko jarduerak laguntzen dira, aurretik enpresa-jarduera zuten erakundeen eraldaketa kasuak barne.

Laguntza honako baremo hauek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren % 70 artekoa da:

- Bazkide langile finko berri bakoitzeko 3.000 euro, eta zenbait kasutan (emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak, etxeko indarkeriaren biktimak, etab.), 1.000 euro gehiago pertsonako.
- Erakunde onuradunak, gehienez, 30.000 euro.
- Ezin izango du ezein kasutan ere gainditu erakundeko bazkide langileek harpidetutako kapitalaren guztizkoa.

Bestalde, horri dagozkion sustapen-ekintzak ere laguntzen dira, enpresa-kudeaketan ondorengo jarraipena eta doako aholkularitza barne. Horren helburua da enpresa sortu eta urtebeteko epean enpresen jarraitutasuna babestu eta mantentzea. Eraentza-ekintzetan kontuan hartutako zenbatekoaren gainerako % 30 balio du laguntzak.

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 958.200 euro banatu dira 184 gizarte-ekintzailetza berri laguntzeko eta 718 lanpostu sortzen lagundu duela kalkulatu da.

### 2.3.5 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiako enpresetan kide berriak lortzeko laguntzak

Bazkideak gizarte-ekonomiako enpresetan txertatzeko laguntza horien asmoa da enpresa mota horietako sozietatearen oinarria hedatzea, eta etorkizuneko bazkideak erakundearen kapital sozialera egin beharreko ekarpena ordaintzen laguntzen du. Kolektibo onuradunak langabezian dauden pertsonak dira, bazkide egingo diren enpresa berean besteren kontura lanean daudenak eta desgaitasuna duten pertsonak. Programa honek langabezian dauden pertsonak txertatzeagatik 2.500 euroko laguntza ematen du, 1.500 eurokoa besteren konturako langileen kasuan eta 2.000 eurokoa desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 197.000 euro eman dira, gizarte-ekonomiako 100 enpresetan 120 bazkide berri txertatzeko.

### 2.3.6 Gizarte-ekintzailetza: Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegia

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa-haztegiak sortzea beharrezkotzat hartzen da gizarte-ekonomiako enpresen lurralde plangintza sustatzeko jarduteko plana osatu, garatu eta gauzatzeko esparrua. Gizarte-ekonomiako enpresa horiek lanaren partaidetzan, aberastasunaren sorrera eta banaketa ekitatiboan eta enpleguaren sorreran oinarrituko dira.

Programa horrek jarduera zirkunskribatzen den lurraldean gizarte-ekonomiako enpresak sustatzeko gastu orokorren % 75 laguntzen du diruz, gehienez 30.000 euroko laguntzen bidez, eta eratutako enpresa-proiektu bakoitzeko jarduteko planean aurreikusitako gastuaren % 75, bakoitzarentzat gehienez 9.000 euro urtean. Gizarte-ekonomiako enpresa bakoitzak 70.000 euro jaso ditzake gehienez.

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 210.00 euro banatu dira 10 gizarte-ekintzailetza berri laguntzeko eta 50 lanpostu sortzen lagundu duela kalkulatu da.

### 2.3.7 Ekintzailetza estrategikoen inguruko Miniconnect programa.

Programa horren helburua da industria-enpresa gazte berritzaileek (edo lotutako zerbitzuek) eta hazteko potentzial handia dutenek (gutxienez 10 lanpostu sortzea proiektuak iraun artean) eta Enpresa eta Berrikuntza Zentro batek babestutakoek garatutako enpresa-proiektuak finantzatzea.

Laguntzak enpresa-proiektua abian jartzeko gastuak lagunduko ditu diruz, langileen gastuak, tresneria eta ekipamendua, lokalen alokairua, aholkularitza eta patenteen zerbitzuak, enpresa-prestakuntza eta berariazkoa, kanpoko aholkularitza eta laguntza teknikoa, azterketa- eta dokumentazio-lana eta azoka edo bidaietara laguntzea barne. Bi laguntzok proiektuaren gastuen % 100 ordaintzen dute, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 100.000 eurokoak izango dira.

Deialdia (SPRIren administrazio-kontseiluak 2014ko urtarrilaren 24an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen martxoaren 3an (42. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaitu zen. 100.000 euro banatu dira 2 enpresa laguntzeko eta 23 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

*Oharra: Hasiera batean, inpaktua enpresa berriek eta enplegu-sorrerak jasatea espero zen, enpresa sortu berriak izaki (eratu zirenetik 5 urte baino gutxiago igaro dira). Alabaina, enpresok funts horretarako sarbidea izateak Ekintzaile programaren onuradun izan direla esan nahi duenez, aipatutako inpaktua birsailkatu egin da, lehendik zeuden enpresek jasango baitute eta enpleguari eusten lagunduko baitie.*

**2.3.8 Enpresa berriak enpresa-haztegi berrietan, alegia, sortze-industrietan, ingurumenean (*green jobs*), informazioaren teknologietan (*blue jobs*) eta osasunean (*white jobs*).**

Ekimen horren helburua da ekintzaile estrategikoak bultzatzea 4 enpresa-haztegi berritan: sortze-industrietan, ingurumenean (*green jobs*), informazioaren teknologietan (*blue jobs*) eta osasunean (*white jobs*).

Programak 3 ekintza mota nagusi izango ditu:

- Ikerketa, aukera-sektore horietan aukerak identifikatzeko.
- Autoenpleguaren bidezko negozio-aukerei eta sektore horietan enpresak sortzeari buruzko sentsibilizazioa eta ezagutza hedatzea.
- Ekimen berri horiek abiarazteko laguntza eta berariazko babes ekonomikoa.

Aurten, egokiago iritzi zaio gazte-ekintzailetzari laguntzeko deialdi orokorra egiteari, eta ez da sektorekako bereizketarik egin. Lortutako emaitzak gorabehera, hurrengo deialdietan kultura- eta sortze-enpresen, ingurumen-enpresen (*green jobs*), arreta soziosanitariokoen (*white jobs*) eta teknologiaren zein komunikazioaren teknologiarekin zerikusia dutenen (*blue jobs*) aldeko diskriminazioa egingo da.

## 3. Ekintza-programa
## Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako Bermea

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 3.1.1 . Enpresa-ideia bat garatzeko laguntzak gazteentzat ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan

Laguntza horiek gazte ekintzaileak izan daitezkeen 18 eta 25 urte arteko pertsonei zuzenduta daude, ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa-ideia bat sortzen, aztertzen eta egituratzen bakar-bakarrik aritu daitezen. Aldi berean, ekintzailetzari loturiko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea errazten da, aholkularitza- eta laguntza-jardueren bidez.

Programa horretako parte-hartzaileek beren enpresa-ideia aztertzeari eta garatzeari lanaldi osoa eskaintzeko konpromisoa hartzen dute, hala nola enpresa-ideia sortu eta garatzeko aholku- eta laguntza-jarduera guztietan parte hartzekoa. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 2.000 euro proiektuko izango da eta jarduerek, gutxienez, 3 hilabeteko iraunaldia izango dute.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 106.000 euro eman dira 53 ekintzailetza-proiektu laguntzeko.

### 3.1.2. Ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan enpresa ekimen berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak gazteentzat

Laguntza horiek ekintzailetzako tokiko proiektuen barruan zehaztutako negozio-ideia jakin bat duten 18 eta 25 urte arteko gazte ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzera bideratuta daude, enpresa- edo negozio-proiektu bat abiarazteko beharrezko tutoretza- eta laguntza-ekintzen bitartez. Ekintza horien iraupena 3 hilabetekoa izango da.

Programa horretan parte hartzen duten pertsonek lanaldi osoa enpresa abiaraztera bideratzeko, enpresa ezartzeko aholkularitza eta laguntza-jarduera guztietara bertaratzeko eta negozioa abiarazteko tutorizazio eta laguntza-prozesua amaitu eta 3 hilabeteko gehienezko epean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko konpromisoa hartzen dute. Emango den diru-laguntza, gehienez, 2.000 euro proiektuko izango da.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 18.000 euroko finantzaketa eskainiko da, laguntzaren lehen ordainketa egiteko (% 50). Bigarrena, 2015ean egingo da (gainerako % 50a). Finantzaketa horren bidez, 18 enpresa eta 18 lanpostu sortzen lagunduko dela kalkulatu da.

.

### 3.1.3. Enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar duten gazteentzako laguntzak, ekintzailetzako tokiko proiektuen esparruan

18 eta 25 urte arteko gazte ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatu eta sendotzera bideratuta daude laguntza horiek, enpresa-jarduera bat hasi eta, proiektu hori sendotzeko, laguntza behar badute.

Laguntza horrek barne hartzen ditu enpresaren eguneroko kudeaketan aholkularitza emateko eta laguntzeko gastuak, bai eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide bereziari dagozkion 6 hilabeteko kotizazio-kostuak ere. Emango den diru-laguntza, gehienez, 3.000 euro proiektuko izango da.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 25ean (159. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 8an amaitu zen. 99.000 euroko finantzaketa eskainiko da, laguntzaren lehen ordainketa egiteko (% 60). Bigarrena, 2015ean egingo da (gainerako % 40a). Finantzaketa horren bidez, 55 enpresa eta 55 lanposturi eusten sortzen lagunduko dela kalkulatu da.

### 3.1.4. Gaztenpresa

Gaztenpresa ekimena Laboral Kutxaren ekimen bat da. Horren helburua da enplegua sustatu eta enpresak sortzen laguntzea, eta, horretarako, gazteek sustatutako enpresa-ekimenen proiektuen bideragarritasun-azterketan, negozio-planen osaeran eta abian jartzean laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen da, baita finantziazioa bilatzen lagundu ere. Horrez gain, online ekintzaileen sare sozial bat kontsultatzeko aukera ematen du, esperientziak partekatu eta informazioa elkartrukatzeko asmoz. Horretarako, Gaztenpresak finantziaziorako baldintza onenak eskaintzen ditu: Euriborraren interes-tasa gehi % 1 lehenengo 60.000 euroentzat eta Euriborra gehi % 1,50 gainerako inbertsioarentzat. Amortizazio-epea 12 urtera artekoa izan daiteke eta gehienez 150.000 eurokoa izango da.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza Lanbideren administrazio-kontseiluaren 2014ko maiatzaren 14ko bileran onartu zen, eta gauzapen-aldia 2014ko urtarriletik 2015eko martxora artekoa izango da. 158.000 euro banatu dira 214 enpresa sortzea laguntzeko eta 300 lanpostu sortzen lagunduko dela kalkulatu da.

### 3.1.5. Urrats bat

Urrats bat TKNIKAk koordinatutako programa bat da, lanbide-heziketako ikasleek beren berezko enpresa sor dezaten. Hartara, ikastetxeak berak enpresa-haztegi eta inkubagailu bihurtzen dira. Programa erdi-maila eta goi-mailako lanbide-heziketako bigarren mailako ikasleei, ikastetxe horietako ikasle ohiei eta horiekin arautu gabeko prestakuntza edo prestakuntza ez-presentzialaren bidez loturarik duen edozein pertsonari zuzenduta dago. Ikastetxe bakoitzak enpresa-proiektuen inguruko sentsibilizazio, dinamizazio eta aholkularitza.lanak egiten dituen arduradun bat du, eta gazte sustatzaileari enpresa sortzeko prozesu osoan zehar laguntzen dio.

2013-2014 ikasturtean 45 ikastetxek hartu dute parte, 7.203 ikasle sentsibilizatu dira eta 199 enpresa-proiektu tutorizatu dira. Programak 2.052.000 euroko laguntza jaso du eta 74 enpresa sortzen lagundu du (autonomo eta mikroenpresa gazteak). Horiek, 121 lanpostu sortzen lagundu dute.

### 3.1.6. Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat

Ekimen horrek helburu du unibertsitate- eta sozietate-alorretako (unibertsitate, kooperatiba eta lan-sozietate eta prestakuntza-zentroetara lotutako) hezkuntza-eragileek egindako prestakuntza- eta hedatze-jardueren laguntzari esker gizarte-ekonomian trebatzen laguntzea.

Laguntzak honako hauek barne hartzen ditu:

- Gizarte-ekonomiako prestakuntza berezi eta desberdindura bideratutako prestakuntza-jarduerak, kooperatibismoari edota lan-sozietateei buruzko ezagutza eskuratu, hobetu edo kualifikatzeko unibertsitate- eta/edo sozietate-esparruan; gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatzea eta abiaraztea prestakuntza unibertsitarioaren barnean; eta gizarte-ekonomiako sozietateen araudia garatzeko unibertsitate arteko ekintzak.
- Kooperatiben eta laneko sozietateen eta aldian behin gauzatutako jardunaldien gaineko aldian behingo argitalpenak kaleratu eta ezagutarazteko jarduerak. Laguntzek jardueraren kostu garbiaren % 85 ordainduko dute.

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 120.000 euro banatu dira prestakuntza- eta hedapen-jarduerak laguntzeko, 1.000 pertsona inguruk parte hartu dutena.

### 3.1.7. Junior-kooperatibak

Programa horrek forma juridikoa ematen dio hezkuntza alorrean kooperatiben sorrerari, eta prestakuntza jarduerak eta, aldi berean, benetako lanak egiten dituzten gazteen espiritu ekintzailea garatu eta bideratzen du. Junior kooperatiba honela definitzen da: "sozietatearen helburutzat abilezien inplementazio praktikoa eta bazkide erabiltzaileek, matrikulatuta dauden ikastetxeetan garatzen dituzten jardueretan eskuratzen dituzten ezagutzak dituztenak, ikasleek sortzen dituzten eskaintzak eta proiektuak merkatuan abian jarriz".

Kooperatibak ikasle-taldeka eratzen dira elkarte modura ikasketen hasieran eta, ondoren, Lan Elkartuko Junior kooperatiba bihurtzen dira. Kooperatiba horiek honako hauetara zuzenduta daude: aholkularitza-zerbitzuak eta coaching-a, gizarte- eta hezkuntza-berrikuntza, marketin esperientziala, gizarte-ekintzailetza, ekitaldien diseinu eta antolakuntza, teknologia eta aplikazioen sorrera eta musika-ekoizpenerako zerbitzuak.

Junior Kooperatiba bat eratzeko 2.100 euroko laguntza jasotzen da, taldera txertatutako pertsona bazkide bakoitzeko (ekintzailetzarako laguntza), eta pertsona horrek izenpetutako kapitala da muga. Langabezian egon ondoren langile bazkide bat txertatzen den kasuan, zenbatekoa 2.500 eurokoa da txertatutako langile bazkide bakoitzeko (txertatzeko laguntza).

Deialdia (Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 18an (154. zk) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 18an amaitu zen. 10.000 euro eman dira, 2 kooperatiba Junior eratzen laguntzeko eta 6 lanpostu sortu dira.

### 3.1.8. Gazteen ekintzailetza sustatzeko ekintza berritzaileak

Ekimen horren bidez, euskal gazteriaren ekimen ekintzailea sustatzeko eta laguntzeko metodologia berriak probatuko dira. Mota horretako ekimenak sortzeko eta sendotzeko babes-sareak sortzea izango da landu beharreko esparruetako bat, gazteen ekintzailetzaren ohiko ahultasunetako batzuk, esperientzia-gabetasuna kudeaketan eta zailtasunak beharrezko finantzaketarako sarbidean, gainditzeko.

Helburu hori betetzat eman da, neurri handi batean, ekintzaileei laguntzeko ekimenei (enpresa-ideia bat garatzea eta enpresa-jarduera berriak abiaraztea eta sendotzea) eta enplegua sustatzeko tokiko ekintzek enpresa-ekimen berriak sortzea eta sendotzea) barne hartutako tokiko ekintzailetza sustatzeko ekimenei esker.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 3.2.1. Hezibi programa

Prestakuntza eta Laneko HEZIBI programak alternantziako lanbide-heziketa eredua garatzen du. 16 eta 30 urte arteko lanbide-heziketako ikasleei eta langabezian dauden pertsonei zuzendua dago, lanbide-gaitasunak hobe ditzaten. Horretarako, profesionaltasun-ziurtagiri bat edo lanbide-heziketako titulu bat eskuratzen dute, enpresan ordainpean egiten duten lan-jarduerarekin txandakatuta. Hartara, enpresen beharrizanak langileek eskuratzen dituzten gaitasunetara egokitzen laguntzen du.

Programa horren baitan prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak egiten dituzten enpresek 2.000 euroko laguntza jasotzen dute, kontratu-urte bakoitzeko. Kontratuaren iraupena urtebete baino luzeagoa edo laburragoa baldin bada, laguntza proportzionalki areagotu edo txikiagotu egingo da. Ikasle langileek lanaldiari dagokion soldata jasoko dute, praktikaldiko langileen gainean sektoreko hitzarmenak jasota duenaren arabera, baina ez da inola ere izango lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa.

Deialdia (Baterako Agindua, 2012ko urriaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako eta Enplegu eta Gizarte-gaietako sailburuena) Lanbideren administrazio-kontseiluaren 2014ko uztailaren 10eko saioan hartutako erabakiaren bidez onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da uztailaren 17an (135. zk.). Eskaerak aurkezteko epea urriaren 15ean amaitu zen. Guztira, 592.604 euro banatu dira eta 375 gazte kontratatu ahal izan dira.

### 3.2.2. Lan-zentroetako prestakuntza praktikoa

Lan-zentroetan prestakuntza praktikoa egitearen helburua da heziketa-zikloetako ikasleen prestakuntza sustatzea, ikasleek benetako ekoizpen-testuinguruan parte hartuta bereganatutako ezaguera, jarrera eta trebetasunak praktikan jar ditzaten. Hala, eta aldi berean, Lanbide Heziketaren eta ekoizpen-prozesuen benetako beharrizanen arteko doikuntza handiagoa lortzen da.

Programa hori Lanbide Heziketak heziketa-ziklo guztietan garatzen da. Lan-zentroetan 3 hileko prestakuntza praktikoa jasotzen dute, ikasturteko epealdi eta ordutegien barnean, irailetik ekainera. Astean 25 eta 35 ordu bitartean jasotzen dute prestakuntza eta, bertan, ikaslea enpresa batetara bertaratzen da lortu nahi duen lanbide-tituluak berezkoak dituen ekoizpen-jarduerak garatzera.

Programaren deialdia urteroko maiztasunarekin egingo da eta TAS/718/2008 Aginduak, 395/2007 Errege Dekretua garatzekoak, arautzen du eskaintza egiteari dagokionez. Halaber, ikasle parte-hartzaileen lanez kanpoko praktikengatiko eta laguntzengatiko eta bekengatiko ordain ekonomikoak nahiz prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako laguntzak emateko oinarriak arautzen ditu.

Baliabide ekonomikoen dagokion esleipena (Lanbideren administrazio-kontseiluak uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 7an. 360.185 euro banatu dira, ikasleei 10.000 beka/praktikaldi eta hileko laguntzak emateko. Aurrekontu- eta inpaktu-murrizketa hori prestakuntza-ekintzen planteamenduak izandako norabide aldaketari zor zaio. Horrela, prestakuntza-ekintza guztiek praktika atxikita izatea bultzatu nahi da, praktika horiengatik hobariak jaso edo ez.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 3.3.1. Lehen Aukera

Lehen Aukera programa 2013 urtean sortu zen lanbide-heziketako titulua duten gazteak lehen enplegura hurbiltzeko. Horretarako, lanbide-gaitasun gehiago eskaintzeko eta hezkuntza-arlotik lan-bizitza aktiborako igarobidea errazteko xedez.

Hasieran, hiru hileko edo iraupen baliokideko prestakuntza-modulu bat egitean zetzan programak, profil akademikoari loturiko jardueretan ziharduten enpresetan praktikaldia eginez gauzatzen zena. 2013an zehar, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen Confebaskekin eta IKASLAN zein HETEL lanbide-heziketako zentroen elkarteekin, lanbide-heziketako 585 ikaslek eta unibertsitateko 600ek parte hartu zuten eta 960.000 euroko aurrekontua zuen esperientzia pilotu bat abiarazteko.

2014an, programaren ikuspegia aldatu zen, gizarte-eragileek hala eskatuta, eta gazteen lan-kontrataziorako laguntza izatera bideratu zen.

Hala bada, 2014an egindako deialdia beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere ez duten eta Gazteen Espainiako Berme Sisteman izena emanda dauden gazte langabeen kontratazioran sustatzera bideratu da, euskal enpresek praktiketan kontratatu ditzaten. Hala, gazteon enplegagarritasuna hobetuko da, lan-esperientzia eskuratuta, laneratzea sendotzeaz gain.

Lagundutako kontratuen iraunaldia gutxienez 6 hilekoa izango da, eta kontratatutako pertsonaren ikasketa- edo prestakuntza-mailaren araberako lanpostuei buruzkoa, enpresako batez besteko langile-kopuruari hazkunde garbia ekarriz.

Kontratu bakoitzarengatik diruz lagundutako zenbatekoa kontratu bakoitzaren soldata gordinaren arabera zehaztuko da, honako taularen arabera:

- 1. tartea: Hileko soldata gordina: 872 eta 1.050 euro artekoa / diru-laguntza: 2.450 eurokoa.
- 2. tartea: Hileko soldata gordina: 1.051 eta 1.290 euro artekoa / diru-laguntza: 2.950 eurokoa.
- 3. tartea: Hileko soldata gordina: 1.290 eurotik gorakoa / diru-laguntza: 3.620 eurokoa.

Aipatutako diru-laguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Lanaldi partzialeko kontratuetan, lanaldiaren arabera zenbatekoak doituko dira. Gutxienez 12 hilabeteko iraupena duten kontratuen kasuan, zenbatekook % 10 handituko dira.

Gainera, zentro laguntzaileen enplegu-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko jarduerak lagunduko dira, programa horrek diruz lagun ditzakeen kontratuak formalizatzen badira. Zentro horiek enplegu-eskaintza baten ondorioz bildu, erregistratu eta kudeatutako diruz lagundutako kontratu bakoitzeko honako laguntza hau jasoko dute: 120 euro, eskaintza bildu eta erregistratu duen zentroarentzat; eta 80 euro, eskaintza kudeatu duen zentro kolaboratzailearentzat.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 30ean onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko abuztuaren 11n (150. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 14an amaitu zen. Guztira, 821.430 euro banatu dira eta 499 gazte kontratatu ahal izan dira.

### 3.3.2. Euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan tituludun gazteak kontratatzea

Programa horren helburua da langabezian egon eta aurretik lan-esperientziarik ez edo askorik ez duten 34 urte baino gutxiagoko gazteak lan-mundura txertatzen laguntzea, Hori, haien tituluekin lotutako lanpostuen bidez egiten da, atzerrian lantegiak dituzten euskal enpresetan praktika-kontratuen bidez. Kontratuak barne hartzen du aipatu lantegietan ikaskuntza-epealdiak egitea.

Xedea enpresen beharrizanetara egokitutako lanbide-esperientzia eta ziurtagiria eskuratzen laguntzea da, baita nazioartekotzean ahalegin handia egiten ari den EAEko enpresa-ehuna babestea ere.

Unibertsitate-titulua, lanbide-heziketakoa edo baliokidea duten gazteekin egindako lanaldi osoko gutxienez 12 hilabeteko praktika-kontratuak lagunduko dira diruz, enpresari loturiko atzerriko lantokian 7-9 hilabeteko gutxieneko egonaldia bermatzen dutenak. Langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuetarako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa jomugako herrialdearen eta prestakuntza-mailaren araberakoa da; gutxienez 15.834 eurokoa eta gehienez 25.200 eurokoa izango da. Horri gehitu behar zaizkio 350 euro hilean, pertsona bakoitzeko, atzerrian dagoen bitartean ostatu hartu eta mantentzeko dieta-kontzeptu modura.

Deialdia (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 10ean onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen uztailaren 18an (136. zk), eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitu zen. Guztira, 1.917.945 euro banatu dira eta 82 gazte kontratatu ahal izan dira euskal enpresek atzerrian dituzten lantokietan.

*Oharra: Hasieran, plana zehazteko garaian, gazte tituludunak euskal enpresek atzerrian dituzten lantokietan kontratatzea laguntzeko deialdi bakarra aurreikusi zen. Ondoren, laguntza horiek bi deialditan banatu ziren, gazteak eta 35 urtetik gorako pertsonak bereizita laguntzeko (ikus 5.2.2. ekimena).*

### 3.3.3. Errelebu-kontratuak egiteko laguntzak

Ekimen horren helburua da Lanbiden izena emana duten 30 urte baino gutxiagoko gazteen eta iraupen mugatuko kontratuarekin enpresa batean lanean diharduten gazteen enplegua sustatzea. Horretarako, gazte-talde horrekin errelebu-kontratuak egiten dituzten enpresak laguntzen dira diruz. Baldintza da kontratuak lanaldi osokoak eta mugagabeak izatea, edo bestela, iraupen mugatuko kontratuen kasuan, bertan jasotzea hasierako konpromisoa, hau da, kontratua amaitzean edo lehenago, kontratu mugagabe bihurtzeko asmoa erakustea.

Kontratu bakoitzeko laguntza, gutxienez, 4.510 eurokoa da eta, gehienez, 6.012 eurokoa. Edonola ere, ez du kontratutako gazteak jaso beharreko urteko soldata gordinaren % 60 gaindituko. Deialdiak 329/2003 Dekretuaren aurretiko agindu batean du jatorria, 2011az geroztik indarrean dagoena. Guztira, 97.897 euroko diru-hornidura izan du eta 255 gazte kontratatu ahal izan dira.

### 3.3.4. Lanbide-orientabiderako hitzarmenak Unibertsitateekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin

Lanbidek lankidetza-hitzarmenak ezarri ditu Deustuko Unibertsitatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta Novia Salcedo Fundazioarekin, unibertsitate-ikasketetako azken urtea egiten ari diren edo unibertsitate-ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan txertatzen laguntzeko.

Unibertsitateekin egindako akordioak aipatu unibertsitateetan titulua jaso aurreko urtean izena emana duten gazteentzako campusetan kokatutako lan-informazio eta orientabiderako zerbitzuak dira. Novia Salcedo Fundazioarekin adostutako akordioaren helburua da titulua eskuratu berri duten gazteak lan-mundu txertatzeko esperientzia berritzaileak abian jartzea da eta, horretarako, bekadun heziketa-praktikak egiten dira enpresetan, prestakuntza-ekintzak suspertzen ari diren alor eta zeharkako gaitasunetan, eta nazioarteko mugikortasunean.

Novia Salcedo Fundazioarekin erdietsitako akordioa Lanbideren administrazio-kontseiluak maiatzaren 14ko saioan onartu zuen eta programa 2014ko apirilaren 1ean jarri zen indarrean eta 2015eko martxoaren 31n amaituko da. Unibertsitateekin erdietsitako akordioak Lanbideren administrazio-kontseiluak uztailaren 10eko saioan onartu zuen eta 2014ko uztailaren 1etik 2015eko ekainaren 30era bitartean egongo da indarrean. Guztira, 400.929 euroko diru-hornidura izan dute programek eta 2.284 gaztek hartu dute parte.

### 3.3.5. Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat

Lanbidek gazteentzat eskaintzen dituen orientabide eta laguntza espezifikoak, informazioa, lagun egitea, motibazioa eta aholkularitza sustatzeko neurriak jasotzen dituzte, pertsona bakoitzaren egoera profesionala kontuan hartuz, haren gaitasunak eta interesak zehaztu eta ikasketarako banakako ibilbidea diseinatu ahal izateko, lan bilaketa edo enpresa-ekimenak kudeatzeaz gainera.

Programa honek ezarritako ibilbide pertsonalizatuaren ondorioz enplegu- eta autoenplegu-orientazioko zerbitzuak eskaintzen lagundu nahi duten erakundeei ematen die laguntza.

Ekimen hau, 4.1.7. Lan-orientabide generikoa eta 5.3.6. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden 45 urtetik gorakoentzako orientabide espezifikoa ekimenekin batera, deialdi orokor bakarraren bidez kudeatzen da, enplegu-orientabiderako ekintza eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen aginduak araututa. Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 23an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 24an (203. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 12an amaitu zen.

Deialdi horri dagokion guztizko aurrekontu-horniduraren zati bat gauzatu da 2014an; 2.535.369 euro eman dira. Gainerakoa 2015erako utzi da. Guztira, 58.635 pertsonari eman zaie arreta (15.135 pertsonari enplegu-zentroetan).

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 3.4.1. Nazioartekotze-bekak

Beka hauen helburua da 28 urte baino gutxiagoko eta unibertsitate-titulua duten gazteak nazioartekotze-alorrean prestatzea. Horretarako, nazioartean hedapena duten unibertsitate, enpresa eta organismoekin lankidetza sinatu da. Bekak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira, eta 3 fasetan antolatzen dira: 1) 3 hilabeteko iraupena duen prestakuntza teorikoa; 2) erakunde laguntzaileetan prestakuntza praktiko espezializatua, 12 hilabeteetan egitekoa; eta 3) enpresa laguntzaileetan prestakuntza praktikoa, 8 hilabeteetan egitekoa.

Fase horiek hiru beka-motarekin bateratzen dira: a) 1. fasean zehar ikastaro teorikoaren gastuaren % 100 ordaintzen da; b) 1., 2. eta 3. faseetarako ikastaroaren gastuaren % 100 ordaintzen da eta 20.000-50.000 euroko laguntza, jomugako herrialde eta hirietako bizi-mailaren arabera; eta c) 1. eta 3. faseetarako, ikastaroaren gastuaren % 100 ordaintzen da eta 8.000 eta 20.000 euro artean herrialde/hiriaren arabera.

Deialdia 2014ko martxoaren 26an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (59. zk.) (Agindua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza, eta Turismoko sailburuarena, 2011ko apirilaren 13koa, 2011ko apirilaren 26ko EHAAn argitaratua (78. zk.) eta 2013ko martxoaren 20an Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak emandako Aginduak -EHAA, 2013ko apirilak 5, 65. zk.- aldatu zuena) eta 2014ko apirilaren 30ean amaitu da epea.

2.618.392 euroko aurrekontua izan du eta 99 beka eman dira. Hautaketa-fasea gaindituta, 2014ko bekadunek prestakuntza akademikoaren 1. faseari ekin zioten Euskal Herriko Unibertsitatean 2014ko uztailaren 1ean. Prestakuntza praktikoa 2014ko abendutik 2016ko uztailera bitarte egingo da.

### 3.4.2. Global Training

Global Training bekak unibertsitateko titulua eta goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten gazteei zuzenduta daude, enpresetan eta erakundeetan praktikan egiteko atzerrian. EAEko gazteak nazioartean mugitzera bultzatzea du helburu, beren profil akademikoari eta profesionalari lotutako jarduerak eta proiektuak atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan egiteko, aldez aurretik planifikatutako trebakuntza praktikoko plan batekin.

Beka bakoitzak 6 hileko iraupena du, eta aurretiko prestakuntza-aldia 40 eta 60 ordu artekoa da, besteak beste, honako gai hauek jorratzeko: atzerrian praktikari ekin, kulturen arteko negoziazioa, komunikazio-teknikak, talde-lana, adimen emozionala eta berrikuntza. Bekadun bakoitzak 1.125 euroko hileko zuzkidura izango du Euskaditik helburuko herrialdera joateko bidaia-gastuak, janaria, ostatua, Gizarte Segurantzaren kotizazioak, eta bisak eta txertoak –beharrezkoak balira– ordaintzeko.

Deialdia (Agindua, 2014ko martxoaren 26koa) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen apirilaren 7an (67. zk.). Erakunde kolaboratzaileek apirilaren 8tik maiatzaren 15era arteko epea izan dute eskaerak aurkezteko; bekadunek, aldiz, ekainaren 25etik uztailaren 28ra artekoa. Guztira, 3.128.418 euro banatu dira, 370 beka emateko.

### 3.4.3 Gazteak itzultzea bultzatzea.

Programa honen helburua da nazioartean lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzultzen diren gazteei kalitateko enplegua lortzen laguntzea. Programak 2 lan-ildo osagarri izango ditu:

- Pilatutako esperientziari probetxu atera eta beren lanpostua sortu nahi duten gazteak itzultzea laguntzea.
- Besteren konturako enpleguren bat behar duten gazteak itzultzea laguntzea.

Batean zein bestean, laguntza integrala beharrezkoa da, gaztea atzerrian den bitartean ere abian jarri daitekeena.

Programa azterketa-fasean dago orain eta datozen ekitaldietan martxan jartzea espero da, aurrekontu-zuzkidurak gorabehera.

### 3.4.4 Nazio Batuen proiektuak egiteko diru-laguntzak

Herrialde pobretuetan Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeek garatzen dituzten proiektuetan parte hartzen duten 35 urte baino gutxiagoko borondatezko lankideei laguntzeko bekak. Beka bakoitzak urtebeteko iraupena du, orokorrean, baina beste urtebete ere luza daitezke. Beka bakoitzaren oinarrizko zenbatekoa 15.000 eurokoa da (pertsona kooperatzailearen konpentsazioa, segurantza eta helburu herrialdera bidaiak), eta herrialde hartzailearen bizi-mailaren araberako osagarria ere badu, hilabeteko 750 euro gehienez.

Beka hauek 22/2007 Dekretuak arautzen ditu. 2014an zehar, ez da beka horiek esleitzeko laguntzen prozedura deitu; alegia, egungo onuradunak aurreko urteetan jasotako beken luzapena jaso duten pertsonak dira: 16 lagun dira 2012ko deialdikoak eta 22, aldiz, 2013ko deialdikoak.

### 3.4.5. Garapenerako lankidetza arloan profesionalak espezializatzeko bekak

Beka hauen helburua da garapenerako lankidetza alorrean profesionalak espezializatu eta prestatzea, 12 hilabeteko epealdian zehar, Lankidetza eta Garapenerako Euskal Agentzian. Prestakuntzak, halaber, Agentziaren programekin lotutako konferentzia, ikastaro, jardunaldi eta mintegietara bertaratzea ere barne hartzen du. Beka bakoitzaren oinarrizko zenbatekoa 18.000 eurokoa da, eta 10.000 euroko osagarria ere badu, kanpoko prestakuntzarako, bekadun guztien artean proportzionalki banatzeko.

Beka hauek 138/1997 Dekretuak, 2007ko ekainaren 17koak, arautzen ditu. Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 20an (199. zk.), eta azaroaren 21ean itxi zen. 98.851 euro eta 6 beka eman dira, abenduaren 29an abiarazi direnak. 2014an zehar, 2013ko deialdiko 6 bekadunek ere parte hartu dute.

### 3.4.6 Laguntzak euskal kooperanteentzat.

Beka horien helburua kooperante profesionalek pobreziaren aurkako borrokan diharduten tokiko erakundeen eta/edo elkarteen sendotze-instituzionalaren alde egindako lana sustatzea da. Horretarako, bere gaitasun profesional eta giza gaitasunen ekarpen solidarioa egingo dute, lan-harremanen esparruko ordainsaria jasoz.

Laguntza gutxienez urte baterako emango da, gehienez bi urterako, kooperatzailearen, aseguruen eta/edo gizarte-segurantzako nahiz helburuko eta herrialdeko joan-etorria, janariari eta ostatuari dagozkion gastuak kanpo utzita. Hautagaitza bakoitzak jaso dezakeen gehieneko urteko diru-laguntza deialdian finkatzen da.

Beka hauek maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuak arautzen ditu. Ekitaldi horretako deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 9an (192. zk) eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 10ean amaitu zen. 211.203 euroko diru-zuzkidura izan du eta 8 pertsona kontratatzen lagundu du, 2014an, 2012ko deialdiko beste 7 pertsonekin batera aritu direnak.

# 4. Ekintza-programa
# Enplegurako prestakuntza

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 4.1.1. Metalaren sektoreko EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza (Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa)

Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsaren Metal Euskadi proiektuaren helburua da EAEn «Produktu metalikoen Fabrikazioa» azpisektorean lan egin eta 2011ko epealdian lanpostua galdu zuten pertsonei lan-munduan txertatzen laguntzea. Horretarako, hainbat ekintza barne hartzen dituen ibilbide osatu eta pertsonalizatua eskainiko zaie. Proiektu horretan parte hartzen dute Metal alorreko Enpresen Bizkaiko Federazioak, Gipuzkoako Enpresaburuen Elkarteak (Adegi) eta Arabako Enpresaburuak-SEA elkarteak; Euskadi Prestakuntza Funtsaren laguntza teknikoa ere jasotzen du. Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsak (FEAG) kofinantzatutako proiektu honek globalizazioaren ondorioz munduko merkataritzako ereduetan emandako egitura-aldaketek ekarrita lanpostua galdu duten pertsonei laguntza eskaintzea du helburu.

Ekintza horrek birkokatzeko prozesu integralak abiarazi nahi ditu. Horretarako, lan-munduan txertatzeko ibilbide pertsonalizatuak erabiltzen dira eta horiek barne hartzen dituzte banakako laguntzak, gaitasun tekniko eta zeharkakoen eta enplegurako trebetasunen prestakuntza, birkokatzeko laguntza, pizgarri eta laguntza pertsonalizatuak eta ekintzailetzarako babesa.

Deialdia (2012ko abenduaren 24ko Gobernu Kontseiluaren akordioan onartua) 2012an egin zen, metal alorreko eta enpresen federazioko enpresekin adostutako hitzarmena ezarriz. 2014an zehar, azken ordainketa egin da, 78.200 eurokoa, eta martxoan amaitu dira iragan urtean zehar egindako laneratze-ibilbide pertsonalizatuetan parte hartu zuten 390 pertsonek hasitako jarduerak.

### 4.1.2. Beste sektore batzuetako EEEtatik datozen pertsonentzako prestakuntza

Programa horren helburua da metalaren alorrekoak ez diren sektoreetako EEEtatik datozen pertsonak lan-munduan txertatzen laguntzea. Horretarako, prestakuntza eguneratu dezaten, sektore eta jarduera ekonomikoei aplikagarriak zaizkien gaitasun eta trebetasunak bereganatzeko hainbat gaitako prestakuntza-ekintzak eskainiko zaizkie.

Prestakuntza-ekintza horiek arautzen ditu 327/2003 Dekretuak, laneratze-zerbitzuen prestakuntza-bitartekoei buruzkoak, 62/2014 Dekretuak aldatu zuenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2014ko apirilaren 24koa). Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko ekainaren 4an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 12an (110. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaitu zen. 1.848.840 euro banatu dira eta 3.956 pertsonek prestakuntza-ekintzetan parte hartzea lagundu da.

### 4.1.3 Bigarren aukerarako prestakuntza

Ekimen hori langabezian egon eta trebakuntza gutxi edo zaharkituak dituzten pertsonen prestakuntza eguneratu eta lan-munduan txertatzen laguntzera zuzenduta dago. Horretarako, sektore eta jarduera ekonomikoei aplikagarriak zaizkien gaitasun eta trebetasunak bereganatzeko hainbat gaitako prestakuntza-ekintzak eskainiko zaizkie.

Prestakuntza-ekintza horiek arautzen ditu 327/2003 Dekretuak, laneratze-zerbitzuen prestakuntza-bitartekoei buruzkoak, 62/2014 Dekretuak aldatu zuenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2014ko apirilaren 24koa). Baliabide ekonomikoen dagokion esleipena (Lanbideren administrazio-kontseiluak ekainaren 4an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 12an (110. zk.).

Prestakuntza-ekintzen diru-zuzkidura 2.118.408 eurokoa izan zen eta 889 pertsonek hartu dute parte.

### 4.1.4. Berrikuntza prestakuntzan: ekintza berritzaileak gazteen enplegurako prestakuntzan

Izaera irekiko ekimena da, indarra hartzen ari diren sektoreetan eta esku-hartze metodologietan proiektu berritzaileak laguntzera bideratuta dagoena, hala nola gazte langabeen prestakuntza-esparruko ekintzetan. Nagusiki, kualifikazio-maila txikiko gazteen gaikuntzarekin zerikusia duten proiektuak lagunduko dira, lana lortzeko aukera gutxi dituztelako epe labur, ertain eta luzean.

2014an zehar ez da deialdirik egin, aurrekontu-kreditua 327/2003 Dekretuaren prestakuntza-programak bereganatu baitu, langabezian dauden pertsonei zuzendutako prestakuntza-ekintza kopurua areagotzeko eta horien eskura jartzeko, ahalik eta lasterren, beren beharretara egokitutako prestakuntza-ekintza bat.

2015ean, egungo dekretua (327/2003 Errege Dekretua) ordezkatuko duen Prestakuntza Dekretua argitaratzen denean, antzeko moduan txertatuko ditu proiektu horiek, baina prestakuntza ez-formalaren barnean esplizituki txertatuko da prestakuntza-baliabide hori.

### 4.1.5. Enplegurako prestakuntza

Ekimen hori langabezian dauden pertsonen prestakuntza eguneratu eta lan-munduan txertatzen laguntzera zuzenduta dago. Horretarako, enplegurako aukera duten alorrei aplikagarriak zaizkien gaitasun eta lanbide-trebetasunak bereganatzeko hainbat gaitako prestakuntza-ekintzak eskainiko zaizkie.

Prestakuntza-ekintza horiek arautzen ditu 327/2003 Dekretuak, laneratze-zerbitzuen prestakuntza-bitartekoei buruzkoak, 62/2014 Dekretuak aldatu zuenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2014ko apirilaren 24koa), eta etengabeko gauzapena dute. Baliabide ekonomikoen dagokion esleipena (Lanbideren administrazio-kontseiluak ekainaren 4an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 12an (110. zk.).

Prestakuntza-ekintzen diru-zuzkidura 28.083.372 eurokoa izan zen eta 9.128 pertsonek hartu dute parte.

### 4.1.6 Prestakuntza, kontratatzeko konpromisoarekin

Programa horren bidez langabezian dauden pertsonak lan-munduan berriz txertatzea lagundu nahi da. Horretarako, prestakuntza-ekintzak egingo dira eta parte hartzen duten erakundeek ondoren kontratatzeko konpromisoa hartuko dute. Prestakuntza-ekintza horiek aurrez aurreko eskoletan irakatsiko dira eta oinarrizko gaitasun eta trebetasunak garatzeko ikasgai orokor edo zeharkakoak irakatsiko dira (oinarrizko maila), eta programazio- edo zuzendaritza-lanetarako gaitasunak garatzeko espezializazioa edo ahalmena eskatzen duten ikasgaiak irakatsiko dira (goi-maila).

Langileei eskainitako berariazko prestakuntza da, lan-merkatuan eskuragarri ez dauden eta lanean jarduteko berariazko kualifikazio osagarria behar duten lanerako profil jakin batzuk behar dituzten enpresetan aritzea ahalbidetuko diena. Kontratazio-konpromisoa dela medio, parte-hartzaileen % 60 kontratatuko dituzte prestakuntzaren enpresa antolatzaileek, gastuoi beren aurrekontuekin aurre eginda, gutxienez lanaldi osoko 6 hilabeteko aldirako edo hilabete-kopuru baliokiderako, kontratua lanaldi partzialekoa bada.

Prestakuntza-ekintza horiek eta bestelako enplegurako prestakuntza-ekintzak arautzen ditu 327/2003 Dekretuak, laneratze-zerbitzuen prestakuntza-bitartekoei buruzkoak, 62/2014 Dekretuak aldatu zuenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2014ko apirilaren 24koa). Baliabide ekonomikoen esleipena Lanbideren administrazio-kontseiluak onartu zuen 2014ko ekainaren 4an eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko ekainaren 12an (110. zk.). 1.301.843 euro banatu dira, 345 pertsonek parte hartu duten prestakuntza-proiektuak lagundu dituztenak. Gutxienez, 207 pertsona kontratatzeko konpromisoa hartu dute.

#### 4.1.7 Lan-orientabide generikoa

Lanbidek langabezian dauden pertsonei, langabezia-arriskuan dauden langileei edo lanpostua hobetzeko eta aktiboak diren pertsonei eskaintzen dien enplegu-orientazioko zerbitzuak informazioa, lagun egitea, motibazioa eta aholkularitza sustatzeko neurriak jasotzen ditu, pertsona bakoitzaren egoera profesionala kontuan hartuz, haren gaitasunak eta interesak zehaztu eta ikasketarako banakako ibilbidea diseinatu ahal izateko, lan bilaketa edo enpresa-ekimenak kudeatzeaz gainera.

Programa honek ezarritako ibilbide pertsonalizatuaren ondorioz enplegu- eta autoenplegu-orientazioko zerbitzuak eskaintzen lagundu nahi duten erakundeei ematen die laguntza.

Ekimen hau, 3.3.5. Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat eta 5.3.6. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden 45 urtetik gorakoentzako orientabide espezifikoa ekimenekin batera, deialdi orokor bakarraren bidez kudeatzen da, enplegu-orientabiderako ekintza eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen aginduak araututa. Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 23an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 24an (203. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 12an amaitu zen.

Deialdi horri dagokion guztizko aurrekontu-horniduraren zati bat gauzatu da 2014an; 2.535.369 euro eman dira. Gainerakoa 2015erako utzi da. Guztira, 58.635 pertsonari eman zaie arreta (15.135 pertsonari enplegu-zentroetan).

## ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK

### 4.2.1 Landunentzako prestakuntza

Programa hori Hobetuzek kudeatzen du eta helburua da landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza-planak garatzea. Plan horien barnean, gaitasun eta trebetasunak hobetzera begirako prestakuntza-ekintzak eta pertsona horiek prestakuntzazko eguneratzeko ekintzak daude. Prestakuntza-planak sektore-artekoak izan daitezke (hainbat jarduera-sektoreen gaitasun horizontal eta zeharkakoak), sektorekakoak (sektore jakin baterako berariazko gaitasunak) eta gizarte-ekonomiaren alorrean, langile autonomoei edo Kualifikazio Sistema Nazionalaren Katalogo Modularrera atxikitako langileei zuzenduak.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko uztailaren 28an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 1ean (145. zk.). Abenduaren 31n, 2014ko deialdia ez zegoen itxita. 12.850.000 euroko aurrekontua erabili da prestakuntza-ekintzak laguntzeko, 44.492 pertsonek parte hartu dutenak.

### 4.2.2 Gaitasunak egiaztatzea

Gaitasunak egiaztatu ahal izatea beharrezko tresna da, bizialdi osoko ikaskuntza errealitate izango den egoera berrian. Hori, pertsonen enplegagarritasuna areagotu eta gure ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko.

Ekimen horren emaitza modura, 463/2013 Dekretua argitaratu zen, abenduaren 17koa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2013ko abenduaren 20an argitaratu zen). Horren bitartez, Profesionaltasun Ziurtagirietarako eta Pilatzeko Egiaztatze Partzialerako Euskal Erregistroa sortu zen, eta ziurtagiri eta egiaztatzeak eskuratzeko izena eman eta igortzeko prozedura arautzen da.

Lanbide-esperientzia eta ikaskuntza ez-formala aintzat hartzeko prozedura sortzeko Dekretua 2013an zehar argitaratzea aurreikusita zegoen. Azkenik, aurreikusitako araudia argitaratu ez den arren, Ogasun eta Finantza Sailak deialdi berria 2013ko abenduaren 30ean argitaratzea baimendu zuen, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Ogasun eta Finantza Saila eta Lanbide horretan ados jarri eta gero. Deialdia 2014ko lehen seihilekoan gauzatu da, baina egiteke dago hautemandako prestakuntza-premien ondoriozko prestakuntza, deialdiko parte-hartzaileei aukera emango diena Profesionaltasuneko edo Prestakuntzako Zikloko Ziurtagiria lortzeko.

Araudi erregulatzailea 2014ko azken hiruhilekoan argitaratu da eta deialdia, aldiz, azaroaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (209. zk). 900.000 euroko aurrekontua izan du eta laneko esperientziaren eta/edo irakaskuntza ez-formalaren bidez 2.605 pertsonek eskuratutako gaitasun profesionalak ziurtatzen laguntzera bideratu da.

# 5. Ekintza-programa
# Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 5.1.1 Enplegua bultzatzea enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (1. motako ekintzak).

Programa horrek barne hartzen ditu ezohiko merkatuan egiten diren kontratazioak, baldin eta haien helburua lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna handitzea bada, beren kualifikazioa, gaitasun pertsonalak eta/edo motibazioa sustatuko dituen aldi baterako lan-esperientzia baten bitartez.

Kontrataziook tokiko erakundeek berek zuzenean egiten dituzte, edo, bestela, laneratzeko enpresen bidez edo gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonei laguntzen dieten irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez. Kontratuek gutxienez hiru hilabete iraungo dute; edozer kontratazio-modalitatetan egin ahal izango dira, baina ez dira izango trebakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak.

Gutxienez, kontratuen % 30 diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonekin izenpetu beharko dira. Gainerako ehunekoa hurrengo taldeetan sartzen direnek osatu beharko dute: 35 urte edo beherakoak, gutxienez sei hilabetez lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna daukaten pertsonak, familia-erantzukizuna duten emakumeak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 12.500 eurokoa da, eta kontratazio-kostuen % 100ekoa ere izan daiteke.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 8an onartua, akatsak 2013ko urriaren 30eko ebazpenaren bidez zuzendu zirena eta 2014ko maiatzaren 16ko saioan aldatu zuena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 19an (92. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 20an amaitu zen. Guztira, 10.839.853 euro banatu dira eta tokiko erakundeek eta/edo gizarte-elkarteek 1.333 gazte kontratatzen lagundu dute.

### 5.1.2 Tokiko ekintzailetzarako laguntza, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (2. motako ekintzak: sortzea).

Laguntza hauen helburua lurralde-esparru bakoitzeko enplegu-haztegi berriei eta interes estrategikoko sektoreei loturiko enpresa-ekimenen sorrera babestea eta sustatzea da.

Horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dira, bideragarritasun-azterketak eta enpresa-planak egiteko xedea dutenak, hala nola enpresa bera eratu eta martxa jartzekoa. Laguntzen zenbatekoa laguntza-gastu guztien % 100era artekoa izan ahalko da, gastu propioak eta aholkularitza teknikoaren ondoriozkoak barne (dagokion tokiko edo eskualdeko erakundeak bere gain hartuko ditu), eta, gehienez, laguntza jasotako enpresa sortu berri bakoitzeko 2.750 eurokoa izango da.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2013ko urriaren 8an onartua, akatsak 2013ko urriaren 30eko ebazpenaren bidez zuzendu zirena eta 2014ko maiatzaren 16ko saioan aldatu zuena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 19an (92. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 20an amaitu zen. 1.150.361 euro banatu dira 626 enpresa laguntzeko eta 751 lanpostu sortzen lagundu duela kalkulatu da.

**5.1.3 Tokiko ekintzailetzarako laguntza, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (2. motako ekintzak: sendotzea).**

Laguntza horien xedea aholkularitzaren bidez sortutako enpresa-ekimen berriak sendotzen laguntzea da jarduten hasi ondorengo sei hilabeteetan, tokiko enpresa-proiektuak sendotze aldera.

Laguntzen zenbatekoa laguntza-gastu guztien % 100era artekoa izan ahalko da, gastu propioak eta aholkularitza teknikoaren ondoriozkoak barne (dagokion tokiko edo eskualdeko erakundeak bere gain hartuko ditu), eta, gehienez, sendotzen lagundutako enpresa bakoitzeko 750 euro jasoko dira.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2013ko urriaren 8an onartua, akatsak 2013ko urriaren 30eko ebazpenaren bidez zuzendu zirena eta 2014ko maiatzaren 16ko saioan aldatu zuena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 19an (92. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 20an amaitu zen. 383.454 euro banatu dira 361 enpresa sendotzen laguntzeko eta 433 lanposturi eusten lagundu duela kalkulatu da.

**5.1.4 Kontrataziorako laguntzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (3. motako ekintzak).**

Laguntza hauen helburua Lanbiden lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak ohiko lan-merkatuan eta toki-enpresetan kontratatzeko laguntza ekonomikoa ematea da.

Kontratuek gutxienez hiru hilabeteko iraupena izango dute; edozein motakoak izan ahalko dira, baina ez dira izango prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak. Kontratuak lanaldi osoz edota lanaldi partzialez egin ahal izango dira (kontratu partzialek lanaldiaren % 50 izan beharko dute gutxienez).

Kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko hiru hilabeteotan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo ditu kontratatuko pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu. Lanaldi osoko hiru hilabeterako lan-kontratu bakoitzagatik, gehienez 3.000 euroko laguntza (4.500 eurokoa, DBE jasoz gero); lanaldi osoko sei hilabeterako edo gehiagorako lan-kontratu bakoitzagatik, gehienez 6.000 eurokoa (9.000 eurokoa, DBE jasoz gero).

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 8an onartua, akatsak 2013ko urriaren 30eko ebazpenaren bidez zuzendu zirena eta 2014ko maiatzaren 16ko saioan aldatu zuena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 19an (92. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 20an amaitu zen. Guztira, 2.887.228 euro banatu dira eta 722 gazte kontratatu ahal izan dira.

### 5.1.5 Enplegua sortzeko bestelako tokiko garapen-ekintzak enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan (4. motako ekintzak).

Ekintza hauek langabeziak bereziki astindutako eskualde eta udalerrietara dago bideratuta. Proiektuek 1., 2. eta 3. motako jarduera gehiago izan ahalko dituzte, edo enpleguan eragina duten bestelako tokiko garapen-ekintzak.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 8an onartua, akatsak 2013ko urriaren 30eko ebazpenaren bidez zuzendu zirena eta 2014ko maiatzaren 16ko saioan aldatu zuena) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 19an (92. zk), eta eskaerak aurkezteko epea ekainaren 20an amaitu zen. 678.921 euro banatu dira enplegu-sorreran eragina duten 226 tokiko garapen-ekintza gauzatzeko.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 5.2.1 Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak.

Programa horren helburua da langabe modura izena emandako pertsonen kontratazioa sustatzea, besteren kontura, langile-bazkide modura edo kooperatiba-sozietateetan lan-bazkide modura lanean dauden eta seme-alabak eta menpekotasun edo larritasun egoeran dauden senideak zaintzeko (lana eta familia bateragarri egiteko) eszedentzian dauden edo lanaldiaren murrizketa eskatu duten pertsonak ordezkatzeko. Era berean, diruz lagunduko da aldez aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada.

Laguntzen zenbatekoa egindako kontratu-motaren arabera ezberdina izango da, eta orokorrean, gehienez, enpresak gertakizun arruntengatik gizarte-segurantzaren kotizazioaren % 100 ordainduko da.

Deialdia (ekainaren 29ko 177/2010 Errege Dekretua) abenduaren 31ra arte egon irekita. Guztira, 1.569.090 euroko aurrekontua izan du eta 1.491 kontratazio lagundu dira beste hainbeste enpresetan.

*Oharra: Espero baino nabarmen handiagoa izan da lana eta familia uztartzera bideratutako laguntzek enpleguan izandako egiazko inpaktua, baina hori 2014ko helburutzat ezarritako datuaren estimazioak beheranzko desbiderapena izatearen ondorio izan daiteke.*

### 5.2.2. Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea

Programa honen helburua da 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea sustatzea, kualifikazio eta/edo esperientzia profesionala dutenak beren arloari eta enpresen nazioartekotze-prozesuei loturiko lanpostuetan. Kontratu horien bidez, euskal enpresek atzerrian dituzten lantokietan jardungo lirateke lanean, era horretan, langabeon laneratzea eta esperientzia profesionala sendotzea bultzatuz.

Lanaldi osoko kontratuak lagunduko dira diruz, gutxienez, 12 hilabeteko iraupena izango dutenak, eta kontratatutako pertsonaren prestakuntza akademikoari eta/edo kualifikazio profesionalari loturiko lanpostuetakoak badira. Gainera, gutxienez 6 hilabeteko egonaldia bermatu beharko da enpresari loturiko atzerriko lantoki batean. Soldataren eta Gizarte Segurantzako gastuen % 85 barne hartuko du diru-laguntzak; gehienez, 37.500 euro kontratuko. 45 urtetik gorako pertsonen kasuan, diru-laguntza gastuon % 95ekoa izango da; gehienez, 39.900 euro kontratuko. Bi kasuotan 350 euro hilean pertsonako gehiago emango dira, atzerrian egondako hilabeteetako ostatu eta mantenu dietak eta bisa edo administrazio-baimena lortzeko izapideen ondoriozko gastuak ordaintzeko; gehienez, 450 euro pertsonako.

Deialdia (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2014ko irailaren 29an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 2an (187. zk), eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 24an amaitu zen. Guztira, 1.015.889 euro banatu dira eta 48 pertsona kontratatu ahal izan dira.

*Oharra: Ekimen hori ez zegoen espresuki zehaztuta 2014ko Ekintza Planean, euskal enpresen atzerriko lantokietan gazteak kontratatzeko laguntzen deialdiaren banakapenean zehaztu baitzen aurrenekoz. Laguntza horiek bi deialditan banatu ziren, gazteak eta 35 urtetik gorako pertsonak bereizita laguntzeko (ikus 3.3.2. ekimena).*

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 5.3.1 Egoera ahulean dauden taldeentzako enplegurako prestakuntza

Lanbidek kudeatutako programa horren helburua da langabezian dauden pertsonak trebatzea, laneratzerako zerbitzuaren menpeko Prestakuntza Baliabideen Katalogoaren baitako prestakuntza-baliabide eta ekintzen bitartez. Horretarako, hainbat erakundek parte hartzen dute prestakuntza-baliabide eta ekintza horien irakaskuntzan.

Prestakuntza-ekintza horiek arautzen ditu 327/2003 Dekretuak, laneratze-zerbitzuen prestakuntza-bitartekoei buruzkoak, 62/2014 Dekretuak aldatu zuenak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2014ko apirilaren 24koa), eta etengabeko gauzapena dute. Baliabide ekonomikoen dagokion esleipena (Lanbideren administrazio-kontseiluak ekainaren 4an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen ekainaren 12an (110. zk.).

Prestakuntza-ekintzen diru-zuzkidura 10.076.439 eurokoa izan zen eta 7.714 pertsonek hartu dute parte.

### 5.3.2 Enplegu-zentro bereziak (EZB)

Laguntza horiek helburua da desgaitasuna duten pertsonei lanpostu batean txertatu, bertan iraun eta aurrera egiteko prozesuan laguntzea da. Horretarako, enplegu-zentro berezietan lanbide-jarduera garatzeko laguntza-unitateak sortzen dira eta desgaitasuna duten pertsonek bertan irautea sustatzen da.

Laguntza-unitateen langileen soldata-gastuak estaltzeko zuzentzen dira, 1.200 euro urtean eta kontratu mugagabea duen desgaitasuna duen langileko edo 600 euro urtean aldi baterako kontratatu baina 6 hilabete edo gehiagoko kontratua duen langileko. Halaber, enplegu-zentro berezian alta emana duen desgaitasuna duen langileko une bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50 ordaintzen da.

Deialdia (Lanbideren 2014ko otsailaren 3ko administrazio-kontseiluak onartua eta apirilaren 1eko 469/2006 Errege Dekretuak eta 1998ko urriaren 16ko Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Aginduak arautua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen otsailaren 13an (30. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen. Guztira, 33.895.321 euro banatu dira eta 11.830 lanposturi eusten lagundu dute enplegu-zentro berezietan.

### 5.3.3 Laneratze-enpresak

Programa horren helburua da laneratze-enpresa berriak sortzen lagundu eta aurretik sortu direnak mantentzen laguntzea. Enpresa berriak sortzera bideratutako laguntzek barne hartzen dute beren bideragarritasuna aztertzeko merkatuko ikerketa, eta horren gastuaren % 50 ordaintzen da, gehienez 6.000 euro. Aurretik sortutakoak mantentzeko, aktibo finkoetako inbertsioen % 85-era bitarteko finantziazioa eskaintzen da, gehienez 12.000 euro, baita laneratze-prozesuan dauden pertsonei zuzendutako lanpostuak sortu eta mantentzeko laguntza ere.

Halaber, merkatu berriak ireki edo enpresaren jarduera birbideratzeko asmoz merkatu-ikerketa berriak egiteko laguntza teknikoaren % 50 ere laguntzen da, gehienez 6.000 euro, baita laneratze-prozesuan dagoen pertsonak egiten duen prestakuntzaren (izen-ematearen gastuaren) % 80-ra arte ere.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko maiatzaren 14an onartua eta 2009ko maiatzaren 4ko Aginduak eta 182/2008 Dekretuak arautua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 23an (96. zk), eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 23an amaitu zen. 6.819.130 euro banatu dira eta 50 laneratze-enpresa lagundu dira, 491 lanposturi eutsi ahal izatea eraginez.

### 5.3.4 Desgaitasunak dituzten pertsonei enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak

Laguntza horiek desgaitasuna duten langileen txertatze laboral, pertsonal eta soziala sustatzea dute helburu. Horretarako, beren baldintza fisiko, psikiko edo adimenekoei egokitutako lanpostuak eskura jartzea bultzatzen da. Desgaitasuna duten langileak kontratu mugagabearekin txertatzen dituzten eta lanpostua egokitu eta arkitektura-oztopoak deuseztatzen dituzten enpresa eta lan elkartuko kooperatibek 3.907 euroko laguntza jasotzen dute lanaldi osorako kontratatutako langile bakoitzeko, eta 901 eurora arteko laguntza jasotzen dute egokitzea edo oztopoak deuseztatzea behar duen lanpostu bakoitzeko.

Deialdia (1451/83 Errege Dekretua, 1994/04/13 MTAS Agindua eta 170/04 Errege Dekretua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 22an (95. zk.) eta eskaerak aurkezteko epea irekita egon da abenduaren 31ra bitarte. 448.322 euro banatu dira, eta desgaitasuna duten 141 pertsona enpresa arruntetan txertatzen lagundu du.

### 5.3.5 Sendotu

Sendotu gizonen eta emakumeen berdintasunaren ikuspegitik eta hezkuntza- eta enpresa-alorretarako gizarte-eragileen artean koordinatuta enplegagarritasuna eta gizarteratzea sustatzeko programa da. Peñascal Fundazioak eta Sartu Fundazioak sustatzen dute eta % 50 EAErako Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen du.

Programak barne hartzen dituen jarduerak honako hauek dira: lan-merkaturako funtsezkoak diren gaitasunak bereganatzeko prestakuntza-ibilbideak garatzea, lanpostua lortu eta bertan mantentzeko tutoretza, ekintzailetza-kultura sustatzea, teknologia berrien erabilera lankidetzaren ikuspuntutik, gizarteratze-enpresak eta enplegua sortzen duten bestelako ekimenak sustatzea eta gizartearen sentsibilizaziorako kanpainak garatzea.

2014an zehar, programak 240.000 euroko laguntza eman du eta 600 pertsonek parte hartu duten gaikuntza-jarduerak gauzatzen lagundu dute.

### 5.3.6 Baztertuta geratzeko arriskuan dauden eta 45 urtetik gorakoentzako orientabide espezifikoa

Lanbidek baztertuta geratzeko arriskuan dauden eta 45 urtetik gorakoei eskaintzen dien enplegu-orientazioko zerbitzuak informazioa, lagun egitea, motibazioa eta aholkularitza sustatzeko neurriak jasotzen ditu, pertsona bakoitzaren egoera profesionala kontuan hartuz, haren gaitasunak eta interesak zehaztu eta ikasketarako banakako ibilbidea diseinatu ahal izateko, lan bilaketa edo enpresa-ekimenak kudeatzeaz gainera.

Programa honek ezarritako ibilbide pertsonalizatuaren ondorioz enplegu- eta autoenplegu-orientazioko zerbitzuak eskaintzen lagundu nahi duten erakundeei ematen die laguntza.

Ekimen hau, 3.3.5. Laneko orientabide eta laguntza espezifikoak gazteentzat eta 4.1.7. Lan-orientabide generikoa ekimenekin batera, deialdi orokor bakarraren bidez kudeatzen da, enplegu-orientabiderako ekintza eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntzen aginduak araututa. Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko urriaren 23an onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen urriaren 24an (203. zk), eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 12an amaitu zen.

Deialdi horri dagokion guztizko aurrekontu-horniduraren zati bat gauzatu da 2014an; 2.535.369 euro eman dira. Gainerakoa 2015erako utzi da. Guztira, 58.635 pertsonari eman zaie arreta (15.135 pertsonari enplegu-zentroetan).

### 5.3.7 Enplegurako laguntzak merkatu arruntean

Programa horren helburua da desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handien duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzen laguntzea. Horretarako, enplegu-jarduerak egiten dira laguntzarekin. Ekimen hori elkarte, irabazi asmorik gabeko fundazio eta enplegu-zentro berezien arteko lankidetzari esker jarri zen abian, eta horiek laguntzen dituzte laguntza duten enplegu-unitatea sortzen duten profesionalen soldataren eta gizarte-segurantzaren gastuak. Erakunde laguntzaileek kontratu mugagabeak edo gutxienez 6 hilekoak egiten dituzte, enpresaren egituraren barneko lanpostu bat betetzeko.

Laguntzen zenbatekoa kontratatutako langile kopuruaren eta desgaitasun mota eta mailaren araberakoa da, laneratze bakoitzeko 4.700 eta 7.800 euro bitartekoa.

Deialdia (Lanbideren administrazio-kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean onartua) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 22an (95. zk.). Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 23an amaitu da eta 620.547 euro banatu dira, 45 pertsona laneratzen lagundu dutenak.

### 5.3.8 Zeinu-hizkuntzarako itzulpenak trebakuntza-ekintzetan

Lanbidek hitzarmena dauka Euskal Gorrak elkartearekin –2013ko apirilaren 12an izenpetu zen– eta horren helburua da zeinu-hizkuntzarako itzulpen-zerbitzuaren bitartez pertsonak trebatzea, beren bulegoetan zerbitzua eskain dezaten. Ekitaldi honetan ere indarrean egongo da hitzarmena.

Aurten, programak 5.046 euroko laguntza eman du, 67 pertsonari gaikuntzan lagunduz.

### 5.3.9 Enplegagarritasunerako proiektu eta esperientzia berritzaileak: Laida proiektua

Alemaniarekin lankidetzako esperientzia pilotu bat garatzeko proiektua da, bazterketa arriskuan dauden pertsonei, zehazki, zamak dituzten emakumeei eta luzeko langabeei hasierako prestakuntza-programa bat eta herrialde horretan praktikak egiteko aukera eskaintzean datzana.

2014an zehar, 66.660 euro bideratu dira proiektu horretara eta bazterketa arriskuan zeuden 24 pertsona lagundu dira.

# 6. Ekintza-programa
# RENOVE Birgaitzea

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

**6.1.1 Banakako birgaikuntzak eta jabeen erkidegoetakoak egiteko laguntzak**

Programa horren bidez sektorean enplegua sortzea espero da, bi motako birgaikuntza-proiektuak garatuta:

- Partikularrek eta jabekideek hasitako eraikinen eta etxebizitzen birgaikuntza bizigarritasuna hobetzeko, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako sarbideak egokitzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.
- Etxebizitzen eta eraikinen birgaikuntza eraginkorra, ondare eraikiko proiektuak egiteko, multzokatuta egonik blokeak edo etxadiak osatzen dituzten eraikinetako irisgarritasun, suteen kontrako segurtasun eta energia-eraginkortasun baldintzak hobetzera bideratuko direnak, gutxienez horren alde bat barne hartuta; hain zuzen ere, nagusiki bizitzeko erabiltzen dena. (Ikus hurrengo orrialdeko oharra)

Lehen motako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidez banatzen dira, esku-hartzearen benetako kostua laguntzeko 5.940 euro gehienez eta merkataritza-saltokien titularrei zuzendutako mailegu kualifikazioen bitartez (amortizazio-epea 5 eta 15 urte artekoa izango da, gehienez 3 urteko gabealdiarekin). Laguntza horiek Revive programarekin osatzen dira; azken hori eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak garatzeko diseinatu da. Laguntza horiek jabeen erkidegoetara zuzenduta daude, eta proiektua idazteko laguntza kostu garbiaren % 90-era artekoak eta obrak egiteko % 50-era artekoak izan daitezke.

Bigarren motako laguntzen bidez, txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko aurrekontuaren % 70 laguntzen da diruz, eta obrak gauzatzeko aurrekontuaren % 50. Adierazitako ehunekoen baturaren gehienezko muga honakoa izango da: 15.000 euro bider esku-hartze proiektuaren aplikazio-esparruaren barne dagoen etxebizitza-kopurua.

Uztailaren 23an onartu zen Agindua, etxebizitza eta lurzoru arloetan jarduera babesgarrietarako laguntzak finantzatzeko 2014an emandako kredituak publiko egiten dituena, tartean, norbanakoen eta jabekideen birgaikuntza-lanei dagozkienak. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 12an (151. zk.).  Halaber, 2012rako Revive Planaren deialdiko obren azteko urtesaria ordaindu da; 2.238.023 euro. Bestalde, ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzen deialdia ebatzi da (Ebazpena, 2014ko ekainaren 6koa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua ekainaren 23an (117. zk.)).

Programak 16.268.274 euro jaso ditu, eta horiek 285.833.579 euroko balioa duten baliabide pribatuak mugiarazi dituzte. 12.755 etxebizitzatan eta bestelako lokaletan egin dira jarduerak, lanaldi osoko urte baterako 3.686 enplegu sortzearen adinako ekarpena eginez (dena dela, oso litekeena da obra horietan parte hartu duten pertsonen egiazko kopurua handiagoa izatea).

### 6.1.2 Birgaitze integraturako laguntzak (Udalak)

Programa horrek enplegua sortzen lagundu nahi du. Horretarako, udaletxeen eta toki-erakunde txikiagoen irisgarritasunerako planak egin eta eguneratzea, dagozkien hobetzeko obrak egitea eta hiri-ingurune eta eraikinen irisgarritasuna bermatuko duten igogailu eta plataforma jasogailuak eskuratu eta instalatzea sustatzen da.

Laguntza horiek itzuli beharrik gabeko diru-laguntza modura banatzen dira, gehienez 300.000 euroko laguntzak dira erakunde onuradun bakoitzeko eta eskatutako irisgarritasun-aurrekontuaren % 50 eta % 80 bitarteko zenbatekoa finantzatzen da. Halaber, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak banatzen dira urbanizatu eta eraikitako ondarea birgaitzeko planak osatzeko ere, birgaitze integratu eta kaltetutako etxebizitza-guneetan. Horiez gain, hirigintza- eta gizarte-izaerako arazo bereziak dituzten guneetako hirigintza-birsorkuntzarako jarduerak ere laguntzen dira.

Urteko lehen seihilekoan ebatzi da irisgarritasun-arloko 2013ko laguntzak, udalei eta bigarren mailako toki-erakundeei dagozkienak (Ebazpena, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 4an argitaratua (104. zk.)). 1.022.470 euro banatu dira; 189 laguntza irisgarritasun-arloan. Urteko bigarren seihilekoan egin da irisgarritasun-arloko 2014ko laguntzak, udalei eta bigarren mailako toki-erakundeei dagozkienak (Agindua, uztailaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian irailaren 8an argitaratua (169. zk)). 2014an 125.000 euroko urtesaria izan duten 81 laguntza eman dira.

Halaber, zuzeneko diru-laguntza bat eman zaio Abanto-Zierbenako udalari, 105.000 eurokoa, hiri-birgaikuntzako lanetarako. Diru-laguntza izenduna jaso du, berriz, Sestao Berri elkarteak, 109.243 eurokoa, eraikin bat birgaitzeko.

Laburbilduz, laguntza-programa honen bidez 1.361.714 euro banatu dira udalek eta bigarren mailako toki-erakundeek irisgarritasun-arloko 270 jardueratik gora gauzatzeko. Lanaldi osoko urte baterako 33 enplegu sortzea adinako ekarpena egin da (dena dela, oso litekeena da obra horietan parte hartu duten pertsonen egiazko kopurua handiagoa izatea).

*Oharra: Hasiera batean birgaikuntza integralerako laguntzek barne hartzen zuten ondare eraikian esku-hartze proiektuak egiteko etxebizitzen eta eraikinen birgaikuntza eraginkorraren arloko laguntzen programa. Dena dela, laguntzon onuradunen izaera kontuan hartuta, norbanakoen eta jabekideen birgaikuntza-laguntzen multzo berean sailkatuko da programa hori.*

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 6.2.1. Birgaitze-lanak ikastetxeetan

Programa horrek enplegua sortzen lagundu nahi du, ikastetxeetan birgaitze-lanak egiteko zuzeneko esku-hartzeen bitartez.

2014an, 23.342.343 euro banatu dira 120 esku-hartze gauzatzeko (proiektuan, lizitazioan edo kontratazioan) 110 ikastetxetan. Lanaldi osoko urte baterako 285 enplegu sortzea adinako ekarpena egin da (dena dela, oso litekeena da obra horietan parte hartu duten pertsonen egiazko kopurua handiagoa izatea). Esku-hartze horietatik 18 2014an gauzatutako obrak edo gauzatzen hasitakoak dira.

**ARDATZ HONEN BAITAN 2014an GARATUTAKO EKIMENAK**

### 6.3.1. Birgaitze-lanak osasun-zentroetan

Programa horrek enplegua sortzen lagundu nahi du, osasun-zentroetan birgaitze-lanak egiteko zuzeneko esku-hartzeen bitartez.

Egoera honetan daude 5 osasun-zentroko lanak 2014ko abenduaren 31n:

- Arabako Unibertsitate Ospitalea: aurreproiektua entregatu da eta gauzatze-proiektua eta obrak abian dira.
- Deba Garaia: eraikina eraitsi da eta urbanizatzea abian da.
- Donostia Unibertsitate Ospitalea: ebakuntza-gelak martxan dira.
- Goierri-Urola Garaia: obra azken fasean da.
- Basurtuko Unibertsitate Ospitalea: obra azken fasean da.

5 osasun-zentro horietan egindako esku-hartzeen aurrekontua 8.700.000 eurokoa izan da 2014an, hasierako helburuko aurrekontuaren % 115, 2015erako aurreikusitako jardueretako aurreratu direlako. Esku-hartze horiek lanaldi osoko urte baterako 160 enplegu sortzearen adinako ekarpena egin dute (dena dela, oso litekeena da obra horietan parte hartu duten pertsonen egiazko kopurua handiagoa izatea).

# 6- ADIERAZLE OROKORRAK

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|
| BPGren urteko hazkundea (%) | -% 1,2 | %1,2 | 2013-2014 urte artekoa. Eustat | ▲ |
| Enpresa-establezimenduen saldo garbia (altak - bajak) | -5.186 | -2.406 | 2013/01/01 - 2014/01/01 Eustat | ▲ |
| Sortutako enpresa-establezimenduen kopurua | 13.829 | 14.796 | 2013/01/01 - 2014/01/01 Eustat | ▲ |
| Esportazioen urteko bolumena (milioi €-tan) | 4,97 | 5,87 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| BPGren gaineko I+Gko gastua (%) | % 2,06 | % 1,99 | 2012 – 2013 Eustat | ▼ |

▲ *2014-2013 bilakaera, zentzu positiboan*

▼ *2014-2013 bilakaera, zentzu negatiboan*

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa (milaka pertsona, BJA) | 1.051,2 | 1.050,3 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▼ |
| Jarduera-tasa (%, BJA) | % 57,2 | % 57,5 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Jarduera-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | -2,22 | -2,01 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▲ |
| Jarduera-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | -0,26 | 0,16 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eurostat | ▲ |
| Landunak (milaka, BAI) | 872,0 | 874,5 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▲ |
| Gizarte Segurantzan izena emandako pertsonak (milaka pertsona, hileko batezbestekoa) | 875,16 | 887,23 | Abendua, 2013-2014 (hileko batezbestekoa). Gizarte Segurantza | ▲ |
| Enplegu-tasa, 16-64 urtekoen artean (%, BJA) | % 63,7 | % 64,8 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Enplegu-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | 6,91 | 5,80 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Enplegu-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | -1,52 | -2,10 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eurostat | ▼ |
| Pertsona langabeak (milaka pertsona, BAI) | 173,3 | 174,1 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Langabezia-tasa (%, BAI) | % 16,58 | % 16,60 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Erregistratutako langabezia (milaka pertsona, Lanbide) | 167,37 | 165,77 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Lanbide \| | ▲ |
| Langabezia-tasaren diferentziala Estatuarekiko (%, BAI) | -9,15 | -7,10 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Langabezia-tasaren diferentziala EBrekiko (%, BAI eta EUROSTAT) | 6,78 | 6,90 | IV. hiruhilekoa, 2013-2014, EIN - III. hiruhilekoa, 2013-2014, Eurostat | ▼ |

| EAEko LAN MERKATUAREN ADIERAZLEAK | 2013ko EGOERA | 2014ko EGOERA | ITURRIA ETA DATA | EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|
| EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 17.500 | 16.747 | Datu metatuak, 2013-2014. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila | ▲ |
| Hutsaltze EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira) | 1.608 | 1.460 | Datu metatuak, 2013-2014. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila | ▲ |
| Baimendutako eta/edo jakinarazitako EEE-en kopurua (guztira) | 1.469 | 1.434 | Datu metatuak, 2013-2014. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila | ▲ |
| Jarduera-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | -11,40 | -10,80 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Langabezia-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (%, BJA) | -0,10 | 0,60 | 2013-2014 aldiko IV. hiruhilekoa. Eustat | ▼ |
| Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka) | 53,08 | 50,77 | Abendua, 2013-2014. Lanbide \| | ▲ |
| Iraupen luzeko pertsona langabeak (25 urtetik gorakoak, urtebete baino gehiago langabezian daramatenak, eta 25 urtetik beherakoak, 6 hilabete edo gehiago langabezian daramatenak), Lanbide enplegu-eskatzaileak direnak (milaka) | 122,70 | 125,02 | Abendua, 2013-2014. Lanbide \| | ▼ |

▲ *2014-2013 bilakaera, zentzu positiboan*

▼ *2014-2013 bilakaera, zentzu negatiboan*